



ARGIA

ZERU AHOAK

Botereak ezkutatzen duena...

TELESAILAREN ZUZENDARI
KOLDO ALMANDOZEKIN
ELKARRIZKETA




2.933 | 2025 / 10 / 05 | 4 €



**Altriren biofabrika
Galizian: bio gutxi,
propaganda asko**

12 | INGURUMENA



**"Bizikletak umetako
askatasun sentsazioa
(betirako) gordetzen du"**

14 | JUANLU PRIMO



**Testuinguru
oztopatzaileetako
bizipenak eta gogoetak**

24 | EUSKARAREN PERIFERIAK

Ekologikoa, dena hobetzeko!



ekolurra.eus

Ekoizten
diren tokian
ingurumena
hobetzen da



Animalien
ongizate-maila
altua duen
abeltzaintza
eredua da



Lurraren
emankortasuna
bermatzen da
etorkizunerako



Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

Babesleak:



Europar Batasunak
kofinantzatuta

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | BERRIKETA GUTXI
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 19 | KARMELO LANDA
- 20 | KATIXA DOLHARE
- 21 | KARMELE GISASOLA
- 21 | ARANTZA GUTIERREZ
- 22 | GORKA MENENDEZ

Finkoak

- 34 | GORPUTZ HOTSAK
- 36 | KOMUNITATEA
- 37 | DENBORAREN MAKINA
- 38 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



AZALEKO IRUDIA: 'ZERU AHOAK'

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



24 | EUSKARAREN PERIFERIAK

Ertzetatik aztertu dute hizkuntza UEUK antolatutako jardunaldietan. Euskarak dituen testuinguru oztopatzaileez mintzatu dira Beñat Garaio HABeko ikerlaria, Iker Villa abeslaria eta aktorea, Diego Pallés EHUKo ikerlaria eta Maialen Gago Guka mugimenduko kidea. Erdalduntze makina, oztopoei aurre egiteko estrategiak, komunitatearen garrantzia, pribilegioak eta tentsioak izan dituzte hizpide.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Lyo... zer? Lyocell, Galizia sutu duen industriaren modako hitza
Urko Apaolaza

14 | PERTSONAIA | JUANLU PRIMO

"Dendan zuloak utzi dituen jendea ez da izan dirurik ez duen jendea"
Onintza Enbeita

30 | HEZKUNTZA | INNOVAMAT

Batzuek maitatzen eta besteek mesfidati begiratzen duten matematika metodologia
Mikel Garcia

42 | ZINEMA | KOLDO ALMANDOZ

"Gu haurrak ginenean zinea herriaren aisialdia zen; hori orain telesailekin gertatzen da"

Maria Ortega

46 | ZINEMA

Donostiako Zinemaldiaren laburpena eta gomendioak

G. Peñagarikano / M. Ortega / E. Atxa

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maialen Arana, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUKEIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

Aztarna ekologikoa:




Aldizkari honek ekoedizioaren baldintzak betetzen ditu. bDAP202500066

 **OLATUKOOP**
Ekonomia sozial eraldatzailearen sareko kide gara.



Legatua

Txiki, Otaegi, Baena, Sánchez Bravo eta García Sanz fusilatu zituzten 50. urteurrenean, irailaren 27an, haien hiltzaileen ondorengoek haien indarkeriaren apologia egin dute Bilbon. Euskal Herriko beste txoko askotan, aldiz, milaka lagunek gogoan izan dute bost militante horien askatasun haizea. Memoria borrokatzeko eremua da eta Espainiako Estatuko indar armatuek ere ondo dakite hori. Ahanzturak inpunitatea bermatzen duelako, eta berriz gertatzeko aukerak handitu. Umeak fusiletatik urrun nahi ditugunoi militante antifaxisten memoria eta legatuari eustea dagokigu. Mitoetatik urrun, garaian garaiko baldintza, erronka, antolaketa-molde, lengoaia, aukera eta praktika propioak sortu behar direlako.

 Guardia zibilaren ate irekien jardunaldia Bilbon.

MIKEL MARTINEZ DE TRESPUENTES / FOKU

 **AXIER LOPEZ**



Hitzen eta errealtatearen arteko desfase deitoragarria

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Frantziako Estatuak Palestinako Estatu aitortu zuen irailaren 22an Nazio Batuen Erakundearen biltzar nagusian. Bere horretan, urrats inportantea: 193 estatuetatik 158k dute orain ezagutzen Palestinako Estatuak –tartean, Segurtasun Batzordeko bost kideetatik lauk–, eta azkenean Mendebaldeko estatu aberatsak lotu zaizkio 1980ko hamarkadan abiatutako aitortpen ariketari. Sinbolikoki indartsua, Israelen bakartzea ikusi daitekeelako. Baina eraginik gabekoa, hain justu, bosgarrenak –AEBek– beto eskubidea izanik, Palestina NBEko kide izateko prozesu orori bidea moztzen ahal diolako. Estatu behatzaile estatutua du Palestinak NBen. Alta, ezin izan du bilera horretan egon, AEBek bisarik ez dielako onartu palestinarrei. Bi estatuen aterabidea hauspotzeko xedea zuen gailurrean ezin izan du parte hartu bi aldeetariko batek. Sinbolo azkarra hori ere, eta diplomatikoki erran-nahi handikoa.

Baina kontua da bakearen aldeko sinboloentzat lekurik ez dela genozidio baten erdian. Beranduegi dator urratsa. Emmanuel Macronek ez du "genozidio" hitza ahozkatu, Israelen kolonizazio ilegala eta anexio xedea ez ditu salatu. Hitz bakoitza xeheki neurtuta osaturiko hitzartzea entzun beharrekoa da; hain justu, hitz bakoitza xeheki neurtuta osaturiko hitzartzea delako. Palestinaren autodeterminazio eskubidearen gainetik jartzen du Israelen bakean bizitzeko duen eskubidea: "Ziur gaude aitortza hori dela Israelentzat bakea ahalbidetuko duen irtenbide bakarra. (...) Palestinako Estatuaren aitortza porrota da Hamasentzat, baita gorroto antisemita piztu, obsesio antisionistak elikatu eta Israelgo Estatuaren suntsiketa nahi duten guzientzat ere" gisako esaldiak ditu. Anitz. Israel babestu, Israelen legimititatea berretsi, hots, sionismoa bururaino eraman. Eta guzia bakean bizita. Ezinezkoa. Hitzen eta errealtatearen arteko aldea nabarmena da Macronen diskurtsoan. Eta guzia genozidio baten erdian. *Day after-az* –hurrengo egunaz– aritu da, hau da, su-etenaren biharamunaz, baina zer dio bezperakoaz? Bestela erranda, nola iritsi Gazarako su-etenera? Horri da-



Frantziako Estatuak presidentea, irailaren 22an egindako New Yorkeko hitzartzean.

gokionez ere hitz ederrak, baina zero neurri konkretu. Su-etenari buruzko negoziatioak geldian daudela –Israelen eraso egin zuelako Qatarren bildutako bakearen aldeko palestinar negoziatzaileei– eta NBEko ikerketa batzorde batek genozidioa badela berretsi duen honetan, ez du hondamendia gelditzeko neurri konkretu bakar bat ere hartu. Urgence Palestine kolektiboak argi du: genozidioa eta kolonizazioa geldiarazteko neurririk ez bada hartzen, ez du ezertarako balio Macronen diskurtsoak. Urgence Palestine, Frantziako Gobernuak ilegaltzat jotako kolektiboa, Frantzia errepresio bidez ari delako Palestinaren aldeko ahotsa isilarazten.

Azken urteetako arma salmenta handiena bideratu dio 2024an Frantziak Israel: 27,1 milioi eurorentzako salmentak. Berehalakoan, salmenta horiek gelditzea da galdetzen zaiona Macroni. Genozidio bat dagoelako martxan eta egun guzietan dutelako berebiziko inportantzia Gaza hiria itsusiki bonbardatzen ari diren honetan. Diskurtsoan mehatxu epel bat egin dio Netanyahu, baina ultimatumik gabekoa: "Gerra amaitzeko eta bakea negoziatzeko jarriko dituen neurrien arabera egokituiko ditugu, Europako kideekin batera, Israelen kooperazioak". Zehaztasunik gabekoa baina kasu: "Europako kideekin batera" hitzek garrantzia dute, biztanleriaren %60 ordezkatzen duten estatu kideen

gehiengoaren onespenearekin hartzen direlako neurriak. Oraingoz, lasai egon daiteke beraz Israel.

Mendebaldearen inperialismoa ikusi duenik ere bada, etorkizuneko urratsak zerrendatzeko posturan. Hamasek "Gazako zerrendan agintea utzi eta armak PAN Palestinako Agente Nazionalaren esku utzi" beharko ditu, "trantsizioko administrazioa" osatuko da PANri "gazte palestinarrek" juntatuta. "Egonkortze misio bat" ere aipatu du, NBEko Segurtasun Kontseiluak onartu beharko duena, beti ere "Israelgo agintarien baimenarekin". Guzia –baita palestinarren bizi politikoa ere– Israelen nahiaren arabera.

Gazako kazetari Ramou Abou Jamousen oharrarekin buka dezakegu aitortza horren analisia: "Jende anitzek galdetzen dit nire eta Gazako palestinarren iritzia estatu palestinarren aitortza horiei buruz. Gazako palestinarren iritzia? Sufri-menduan itoak dira. Ez dute lortzen miseria-petik burua ateratzen. Mendebaldeko herrialdeek estatu palestinar bat onartu dutenik ere ez dakite. Eta jakingo balute ere, seguru asko bost axola lieke. Saraskien erdian dira, ihes egin nahi dute bonben azpitik, eta aterpe bat aurkitu. Familia osoak itota daude pobreziaren sufri-menduan. Beren ondasun guziak saltzen dituzte. Ihes egin ahal izateko. Nora joateko? Ez dakite". ●

BERRIKETA GUTXI

Jaio. Kirola. Hil



IMANOL EPELDE
27zapata.eus

Abuztuaren erdian hasi zen eskubaloira entrenatzen seme zaharrena; irailetik aurrera, astean lau entrenamendu ditu (hiru tekniko, bat fisikoa) eta asteburuetan partida. 15 urte ditu. Erdikoak, eskola-kirolaz gain, futbola eta eskubaloia. 9 urte ditu. Etxeko agendan, leku gehiena baloiek hartzen dute. Kirolak osasuna eta lagunartea ematen dizkie, hala da hori, asko da hori. Eta prestigioa.

Baina kirolak zentralitate handiegia du: kirolak denbora kolonizatzen du eta jolas librea ordezkatzen. Sormen autonomoa gutxitzen, errendimendura bideratutako entrenamendu exigenteekin. Haurrak infantil, alebin eta kadete bihurtu dira, haur izateari utziz. Ahaztu egin zaigu irabazi eta galdu gabe ere pasa daitekeela arratsalde bat, asteburu bat, jolas-ordu bat. Bizitza bat.

Irudikatu abuztuan hasita, astean lau bertso-entrenamendu, eta, asteburuetan, bertso-saio bat izango lukeen gazte bat. Gazte bat bere potentzialitate eta aukera guztiekin hitzak sortzera emana. Irudikatu astean lau aldiz dantzaz aritu, eta, asteburuetan, dantzarako erromerian elkartuko litzatekeen herri bat. Irudikatu astean lau aldiz marraztera edo musikara askatuko litzatekeen herri bat. Beste doinu batean kantatuko genuke. Edo are, kantatu egingo genuke.

Normalizatu egin dugu kirolak baldintzatzea gure asteburuak: lehenengoa da kirola, eta, horren arabera, antolatzen ditugu familia-planak, kultur-planak, mendi bueltak. Normalizatu egin dugu kirolak baldintzatzea herri planak: kontuz lehen mailako futbol talderen batekin kointziditzen badu manifestazio edo kultur ekitaldi batek.

Badakit ez zaiela lanik falta; egutegian ez dute egun libre askorik aurkituko. Baina lerro hauen bidez, Nazio Batuen Erakundeari otoitz egiten diot izendatu dezaten egun bat, bakarra bada ere, kirol jarduerarik gabekoa, autorik gabeko eguna edo kerik gabeko eguna izendatzen den bezala. Amen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Bizigarritasuna helburu



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI

Grebek laguntzen digute ideologiazioan, kontzientziazioan, kolektibizazioan. Greba prozesu bat da, lanuzteaz harago. Epe motzean emaitzak lortu gabe ere –galdetu bestela Gasteizko lorezainei edota Gipuzkoako erresidentzietako langileei–, borrokarako eta antolakuntzarako kultura indartzen du.

Urte luzetako borroka feminista eta sindikalari esker, eta 2023ko greba feministak aldarrikatutako zaintza eskubide kolektibo mugarri gisa dugula, kontziliazio eta zaintzari begira aurrerapauso itzelak lortu ditugu lantokietan. Urtez urte jaiotza eta adopzioagatiko baimeak nabarmen luzatzeaz gain, txikien zaintzarako 8 asteko baimenak onartu zituen Estatu espainiarreko gobernua 2023an. Bi aste gehiagoko baimen ordainduak, berriz, 2025ean. Gurasoontzako bakarrik ez, bizikide eta familiar-tekoen ospitaleratze eta mendekotasun egoeretarako ere baimenak luzatu dira –enpresek legearen interpretazio oso ezberdinak egiten dituzten arren–.

Gero, legeaz gaindi, negoziazio kolektiborako sindikatuak osatutako plataformek bilatu dituzte bestelako kontziliazio neurriak, pertsonak erdigunera eramateko estrategiak landuz. Kooperatiben kasuan, bazkideon ahaleginari eta kontzientziazioari esker saiatzen ari gara aurrerapausoak ematen; dola bere espazioa aitortu eta emanda, adibidez.

Dena den, adinean aurrera goazen heinean, guraso edota ahaideen gaixotasun eta ezintasunek gure agendetan gero eta espazio zabalagoa hartzen dute. Egoitzak, ospitaleak, eguneko zentroak... gero eta sarriago errepikatzen zaizkigun egoerak dira, gure osasun propioan eragiten dutenak. Zein den sarri gure irtenbidea? Familia medikuak osasun mentalarengatik baja ematea, gaixotasun arruntez moztortuta. Zaintzari bere lekua aitortuta, tresna osagarriak behar ditugu, sisteman lan erreproduktiboari ere espazioa emango diotenak. ●



Euskal zinea

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Iragan berria den Donostiako Zinemaldian euskarazko hiru lan eskaini dira prestigiozko Sail Ofizialean: *Maspalomas*, *Karmele* eta *Zeru ahoak*.

Festibala gutxi gorabehera erdira heldu zenean ohartu nintzen laugarren bat ere bazegoela *euskal zinea* labelarekin: *Los domingos*. Bilbon grabatu dute, barakaldar batek zuzendu du eta aktoreen artean badira gurean ibilbide esanguratsua egin dutenak. Euskaraz, dena dela, dozena erdi izen euskaldun, lau “agur” eta kantu bat baino ez dira entzun filmean.

Zinemaldia amaitu bezperan ohartu nintzen Sail Ofizialeko bosgarren film bat ere bazegoela *euskal zinea* markarekin: *Los tigres*. Andaluzian grabatu dute, andaluziar batek zuzendu du eta aktoreen artean ez dago euskal herritarrik. Ekoizleetako bat da donostiarra, euskal hitzuna. Filmean, hitzik ez euskaraz, jakina. Huelvan kokatzen den istorio batean nork hitz egingo du euskaraz?

Jaialdia hasi aurretik, Donostiako Zinemaldiaren antolakuntzak letra larritz iragarri zuen 38 euskal ekoizpen proiektatuko zirela. Hau da, edo Euskal Herrian grabaturiko –EAEn suposatzen dut– edo hemengo ekoiztetxeek parte harturiko 38 lan. Horietatik bost dagoeneko iragarri dizkizuet. Gainontzean badira euskaradunak, ez dezagun bestelakorik ulertu. Baina auzia horixe da: hartu dugula dinamika bat, ekintza “kultural” handi gehienek bezalaxe, urtetik urtera zifra handitzen joatean datzana, eta hori da, dirudienez, “señale ona”. Baina denbora kontua da. Zineman, urteren batean, hasiko da beheraldia: moztuko dituzte pizgarri fiskalak. Orduan hasiko gatzazkio zifrari letra begiratzen.

Ez dut konprenitzen nori interesatzen zaizkion zifra puztuak. Zeren, ez didazue esango zentzua duenik andaluziar batek Andaluzian grabatu eta Andaluzian kokatu duen filma *euskal zinea* izateak. Horregatik, ez dut sinesten 38ko zifra hori. Eta letra txikia gehiago arakatzea proposatuko nuke. Esaterako, nork bere buruari galde diezaiola ea *euskal zinea* diren Euskal Herrian ekoiztu arren erraz ederrean Valladoliden kokatu daitezkeen filmak, nagusiki, ez euskarak eta ez Euskal Herriak ez dutelako pisu ñimiñorik ere. Baina horiei *euskal zinea* esaten diegu; are harroago, gainera, Urrezko Maskorra irabazten badu. Jakin nahiko nuke Miarritzen edo Tafallan kokaturiko eta erdara hutsezko lanari *euskal zinea* deitzeko zirkinik ere egingo ote genukeen. Sariren bat jasoko balu, agian bai.

Iragan berria den Zinemaldian, Kursaaletik irten eta parean ikusi ditugu hiru afixa handi, hiru film iragartzeko: *Rondailas*, *Los tigres* eta *Los domingos*. Aldamenean, Netflix multinazionalaren kartela: “Zine espainiarrarekin dugun maitasun istorioak lekua du Netflixen”. Uste dut geu bizi garela pelikula batean, geure errealtate fikzio bihurtzen, zifrekin engainatzen. Atzeritarrek pizgarri fiskalak maite dituzte, eta ez euskara eta Euskal Herria. ●

Itun soziopolitiko berria

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Euskara biziberrituko bada, hizkuntza politikan jauzi bat ematea ezinbestekotzat du Euskalgintza-ren Kontseiluak. Jauzi hori emateko proposamen bat aurkeztu du, eta itun soziopolitiko berri baterako deia egin du, irailaren 26an, Batuz Aldatuko Sinatzaileen II. Batzarrean. 2021ean, etorkizunari begirako ardatzak eragile sozialekin adostu zituzten Batuz Aldatu prozesuaren bidez. Azken urtean, prozesu horretan lortutako adostasun soziala akordio politiko bilakatzeko lanean aritu da Kontseilua. Proposamena 113 eragilek sinatu dute.

Idurre Eskisabel Kontseiluaren idazkari nagusiak adierazi du atxikimendua "zabaltzeko beharra" dagoela. Itun berri baterako eskaintza hori "amesten dugun pizkunde horretara" heltzeko bide bat dela azpimarratu du, eta lortutako akordioaren garrantzia nabarmendu du: "Posible da pizkundera, horretarako adostasun soziala badago".

Batuz Aldatu dinamika 2021ean abiatu zen. Kontseiluak, orduko hartan, adierazi zuen hizkuntza politikan jauzi bat egiteko beharra zegoela. 2025ean, euskararen biziberritzean paradigma berri baten beharra are eta nabarmenago hautematen du. Oldarraldi judiziala aipatu du, eta gogorarazi du 2024an euskaldunen komunitatea larrialdi linguistikoan dagoela adieraztera behartuta ikusi zuela bere burua. Berriki UEMAK aurkeztutako 2036rako proiektio demolinguitikoaren emaitza kezkarriak ere aipatu ditu erakundeak.

2021ean, 110etik gora elkartek, fundazioak, eragilek, enpresak eta sindikatuk *Batuz Aldatu: Hizkuntza-politiketan eragileko adostasun soziala* aurkeztu zuten eta euskararen biziberritzean pausoak emateko akordio soziopolitiko berri baten alde lanean hasi ziren. Lan horretan, Kontseilua eta beste hamar eragilek osatutako talde eragilea aritu da lanean eta prozesuaren emaitza Batuz Aldatuko Sinatzaileen II. Batzarrean aurkeztu dute: *Itun Soziopolitiko berrirako eskaintza*. Talde Eragileko ordezkariak hauek izan dira: Athletic Club Fundazioa, Agirre Lehendakaria Center, Mondragon Korporazioa, Eusko Ikaskuntza, Euskal Kontsumitzaileen Alkartea, Taupa Mugimendua (Euskaltzaileen Topagunea), Bizipoza Bilgunea, AEK, Gazte Euskaltzaileen Sarea, Gipuzkoako Erizainen Elkar-goa, Nafar Ateneoa eta Euskalgintza-ren Kontseilua.

Urtebetez itun berrirako edukiak zehazten aritu dira, bi oinarriren gainean: batetik, euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa bultzatzea, herritar guztiek euskaraz aritzeko gaitasun ego-kia izan dezaten, eta bestetik, euskara eroso erabiltzeko eremuak sortu, garatu eta elkarlotzea, "hala nahi duen edonork ez dezan izan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik". Bi norabide horiek garatzeko arloak banaka zehaztu dituzte, hala nola hezkuntza, helduen euskalduntzea, kulturaren transmisioa, arlo sozioekonomikoa, administrazioa, astialdia eta eremu digitala. ●

MOTZEAN

Gaizkile elkarte baten parte izateagatik bost urteko kartzela zigorra jarri diote Nicolas Sarkozy Frantziako presidente ohiari; haatik, leporatzen zitzaizkion beste karguetatik errugabetu du Parisko Auzitegiak.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailean Juan Mari Atutxaren eskuin eskua izan zen Jon Goikoleak zuzenduko du Arkautiko akademia.

Debekaturiko 122.000 tona pestizida esportatu ditu 2024an Europar Batasunak. Inportatzaileen zerrendan 93 herrialde ageri dira, eta horietatik hiru laurdenak diru sarrera txikiak edo ertainak dituzten herrialdeak dira.

Manifestazioa egin dute Gasteizko lorezainek, greba mugagabea hasi zutenetik sei hilabete bete direnean. Irtenbide bakarra "soldata duinak" direla ohartarazi dute.

Leherketak barkuetan, drone andana ontziditik gertu, komunikazioan eteteak, ontzietara jaurtitako objektuak... Global Sumud flotillaren aurkako erasoak ugaritu ditu Israelek, Gazara hurbildu ahala.



Fandoma



DIANA FRANCO

Interneteko plataforma boteretsuenek fenomeno bat sortu dute: euren sistemen baitan, negozio eredu "burujabeak" sortzearen ilusioa.

Australiako Glitch estudioak *Guinivereko zaldunak* 2D animazio telesaila argitaratu berri du Youtube plataforman. Istorioan, Dana Terrace marrazkilari eta zuzendariak etorkizun distopiko baten inguruan dihardu. Disney korporazioaren marrazkilaria izan zen, eta entretenimenduen industriari kritika egiten dio, bere esperientzian oinarrituta. Entrenimenduen korporazio handiek, etekinak gidatuta, edukiak errepikatzen duten jorari (merkatuari behin eta berriz berdina eskainiz), baita naturaren baliabideen inguruan egiten duten ustiaketa ere.

Lehen kapitulua asko gustatu zait. Ez naiz animazioan aditua, baina kalitate oso onekoa iruditu zait. Baina askori galderak datozkigu burura, lan hau ikusita. Zelan sostengatu dezake horrelako estudio txiki batek munduan hainbesteko oihartzuna hartu duen produkzio bat? Dirudienez, neke handiz... eta beste batzuen negozioen bizkarrera igota (Youtube, Netflix...), mendekotasun handiko errealtateak sortuz eurentzat eta euren jarraitzaile komunitatearentzat (fandoma). Plataforma horien bidez, Danak arriskua du korporazioei kritikatzeko dien horretan erortzeko, beti berdina eskaintzea. Izan ere, plataforma horiek, eremu digitaletan dugun jokabidearen zelarritan oinarritzen dutenak euren negozio eredu, behin eta berriz antzeko edukiak kontsumitzeko arriskua sortzen dute pentsamendu kritiko askorik gabe nabigatzen dutenentzat.

Orain dela hamarkada bat, berrikuntza-ren guru guztiak sorkuntzaz eta ezagutzaren ekonomiaz hitz egiten hasi zirenean, ez nuen errealtate hau inondik ere irudikatzen: sortzaileen eskutik, holako plataforma zapaltzaileetara jarraitzaileak (fandoma) bideratzeko dinamika. ●

Haur eta gazteekin genozidioa lantzea, ikastetxe askoren hautua

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Palestinan gertatzen ari denarekiko haurrak ekidistantzian hezteaz ezeinezko bihurtu da ikastetxe (eta etxe) gero eta gehiagotan, adinaren arabera zer eta nola kontatu konplexua izan badaiteke ere.

8-9 urteko hurrei Palestinaren aurkako sarraskiaz ea zerbaite ote zekiten galdetu zien Lesakako Irain ikastetxeko Iñigo Larrazabal irakasleak, eta batzuek gehiago, bestek gutxiago, denek zuten zerbaite entzuna, "ezagunak zituzten bandera palestinarrek, Vuelta aipatu zuten, bonbak...". Gerraz hitz egiten hasi ziren umeak, eta gerra eta genozidioaren arteko aldea azaldu zuen Larrazabalek. Gaia hurrekin jorratzeko, bideoen bat ipintzea pentsatu zuen, "baina irudiak oso gorrak dira, eta zalantzak izan nituen jarri ez jarri, azken finean haur txikiak dira oraindik, baina aldi berean gertatzen ari den errealtate bat da, ezin diegu umeei genozidioa ez aipatu". Azkenean, bi bideo motz ikusi zituzten: batean ume palestinar bat ageri da irina eskatzen, eta bestean gose diren agure batzuk; "aitzakia eman zigun hitz egiteko Palestinan bizi duten goseteaz, eta azaltzeko bonbekin bakarrik ez, gose ere akabatzen ari direla jendea".

Erreakzioak? "Ume pare batek negar egin zuten, eta lasai asko egiteko eta sentitzen dutena azaleratzeko esan nien". Galderak ere planteatu zituzten: Zergatik ez ditu Poliziak israeldarrak atxilotzen? Zergatik ez da ezer egiten? Noiz bukatuko da? "Funtsean, hurrek, 'injustizia' hitza esplizitatu gabe, baina injustizia bezala bizi dute gertatzen ari dena, hala barneratu dute". Eta bitxikeria bat: eztabaidaren

ondorengo jolas librean, plastilinarekin aritu ziren ume batzuek palestinar bandera egin zuten.

Iruñeko Iturrama institutuan, Iturrama Solidarioa proiektuaren baitan Sahara eta Palestinako auziak lantzen dituzte urtero, 14-15 urteko gazteekin. Irati Agirre irakasleak kontatu digunez, ikasgai ezberdinetan lantzen da, adibidez argazkilaritzan (Iruñeko ikasleen euren eguneroko bizitza eta Palestinako gazteena irudikatzen eta konparatzen dute, muntaketa bidez, eta gero erakusketa egiten dute ikastetxean) edota ingelesean (Palestinaren inguruko berriak landuta). "Gizarte mintegitik mintzatzen gara Israel-Palestina auziko garapen historikoaz, kolonoez, sionismoaz, semita izateaz, holokaustoa erabiltzeaz gaur egungo ekintza batzuk justifikatzeko... Testuingurua eta kontzeptuak lantzen ditugu, eta afera hobeto ulertzeko eta beren gogoeta egiteko balio die ikasleei".

DBH3ko ikasleen erreakzioak? "Gaierako interes handia izan ohi dute, zurrerik albigestegietan eta oso presente dagoelako, eta galdera ugari egiten dituzte; esaterako, ez dute ulertzen Gaza bezalako eremu bat existitzea, kartzela bailitzan". Astero patio garaian elkarretaratzeko egitea ere dute helburu, genozidioa salatzen. Azken finean, Palestinaz hitz egiteko konpromisoa eta inplikazioa bere egin dute Iturramako irakasleek.

Hezitzaile askok garbi du: balioetan hezteaz da hezkuntzaren arduretako bat, baita gogoeta kritikorako haur eta gazteei testuingurua eta erremintak ematea ere. Injustizien aurka hezi behar du eskolak. ●



IRAIN ESKOLA

Bernedoko udalekuetako hezitzaileen aurkako difamazioa gaitzetsi dute

 LEIRE ARTOLA ARIN

Bernedoko hezitzaileen aurkako salaketa publikoak zabaldu dira azken asteetan, besteak beste, nerabeak dutxa mistoak izatera "behartzeagatik". Hezitzaileek gezurtatu egin dute halakorik zein gazteekiko tratu okerririk, eta gaitzetsi dute "mezu transfoboak zabaltzeko udalekuetako jarduna" erabili izana.

Dutxak eta logelak mistoak izatera "behartzeagatik", nerabeak "inkomunikatuta" edukitzeagatik eta "medikuaren eraman nahi ez izateagatik"... Bernedoko (Araba) euskal udalekuetako hezitzaileei zenbait portaera leporatu dizkiete sare sozialetan, eta hezitzaileek euren irakurketa argitaratu dute orain, leporatutakoa gezurtatzeko, eta "haur eta gazteen ongizateari eta familien konfiantzari" ematen dieten garrantziagatik. Gogorarazi dute adin txikikoez ari direla eta "ardura" dutela "gaia tentuz tratatzeko", izan ere, kritikatu dute zenbait hedabidetan "sentsazionalismoa eta morboa" sustatu dituztela.

15 urteko alaba udaleku horietara eraman zuen ama baten salaketa publikoaren harira piztu dira hezitzaileen aurkako mezuak, eta sare sozialetan gero eta gehiago zabaldu dira salaketak. "Errealitate oso urrun dagoen kontakizun batetik abiatu da, udalekuetako jarduna mezu transfoboak zabaltzeko", azaldu dute Bernedoko hezitzaileek ohar batean. Gaitzetsi egin dituzte komunikazio bide pribatu eta publikoetatik jasotako "hezitzaileen aurkako mezuak, erasoak eta difamazioa helburu zituzten diskurtsoak". Batik bat eraso transfoboak salatu dituzte, dutxa mistoen harira "gorroto mezuak zabaldu direlako sare sozialetan zein hedabidietan". Halere, eskerrak eman dizkiete babesa adierazi dieten haur, gazte eta gertukoei, eta nabarmendu dute mezu positiboak gehiago izan direla gorroto mezuak baino. Ziurtatu dute gurasoen behar eta zalantzei "erantzun indibidualizatuak" eman dizkietela uneoro.

Bernedoko hezitzaileek gezurtatu egin dute nerabeen aurkako tratu okerririk, eta berretsi dute euren lana "arduraz eta profesionaltasunez" egiten dutela, "haur eta gazteen beharrak erdigunean jarrita":



BERNEDOKO UDALEKUAK

"Argitaratu diren gezurren aurrean, esan gabe doa haur eta gazteak etengabe edukitzen ditugula zainduta eta txanda bakoitzean hamaika bisita egiten ditugula medikuaren eraman". Izan ere, nerabeak medikuaren eraman ez eramatea leporatu diete hezitzaileei, baita gazteak "inkomunikatuta" izatea ere. Azken horri lotuta, azaldu dute gurasoei eta gazteei alde aurretik jakinarazten zaiela ez dela deirik egongo udalekuek irauten duten bi asteetan; gutunak bidaltzeko aukera dute, udalekuetan ohiak den bezala. "Edonola ere, beharrezkoa den kasuetan berehala jartzen gara familiarekin harremanetan, eta haur eta gazteei ere eskaintzen diegu horretarako aukera hala behar denean".

Dutxa mistoek eragindako "gorroto-mezuei" erantzunez, Bernedoko hezitzaileek oroitarazi dute euren hezkuntza-proiektua balio transformatibotzat oinarritzen dela: "Espazio mistoekin haur eta gazte guztientzako leku seguruak bermatzea da gure egitekoa, alde aurretiko genero-identifikazio beharrik gabe". Gizarteko binarismoak eragindako diskriminazioa hautsi nahi dute, eta "proposamen politiko, beraz, etiko" hori haur eta nerabeekin berariaz lantzen dutela eta hausnarketarako baliabideak ematen dizkietela ziurtatu dute.

Alegia, identitate eta gorputz aniztasunak sor dezakeen "deserosotasuna" hezi-

ketarako tresna gisa darabilte udalekuetan. Dutxen kasuan, "higienarako leku soil izateaz harago, gorputz guztiak normalizatzeko, estigmak apurtzeko eta lotsatik eta sexualizaziotik askatzeko aukera bat" direla sinesten dute udalekuetan. Jakitun dira gizarte honetan biluztasuna sexualizazioarekin lotzen dela, eta saiatzen dira hori ere lantzen, oharrean adierazi dutenez: "Biluztasunaren eta generoen arteko harremanaren desexualizazioa lantzea ezinbestekoa iruditzen zaigu hainbat biolentzia motatatik babesteko, eta sinesten dugu dutxa mistoak sexualizazio hori deseraikitze leku izan daitezkeela".

Bernedoko hezitzaileei publikoki leporatu diete "15 urteko neskek mutilekin batera dutxatzera behartu" izana, baita hezitzaileak eurekin dutxatzea kritikatu ere. Hezitzaileek argitu dutenez, ez dute inor "behartzen" horretara, eta haur eta gazteen "segurtasun eta ongizaterako arduraz eta konpromisoaz" aritzen dira: "Biluztasunak duen karga sozialak haur eta gazteengan deserosotasunak sor ditzakeela jakinda jarduten dugu. Espazio seguruak sortzeko bermeak jartzen ahalgintzen gara, dutxak ere, ekintza oro bezala, gainbegiratzeko eta zainduz: ez dugu inor behartzen besteen aurrean biluzteraz, eta akonpainamendua eta alternatiba pertsonalizatuak eskaintzen ditugu kasu bakoitzean", baieztatu dute. ●

LYO... ZER? LYOCELL, GALIZIA SUTU DUEN INDUSTRIAREN MODAKO HITZA

Altri multinazionalak Europako zelulosa lantegi handienetakoa eraiki nahi du Galizian, Palas del Rei herrian, lyocell deituriko zuntz "jasangarria" ekoizteko. Eukaliptoak, ura, moda-industria indartsua eta oligarkia politiko diruzalea. Dena du alde horretarako. Dena? Ez, galiziarrek masiboki atera dira kalera proiektuaren kontra, ondotxo ikusi baitituzte Portugalen eragindako kalteak.

 **URKO APAOLAZA AVILA**

Irailaren 17an Jose María Castellano hil zen 78 urterekin, Madrilén. Akaso ARGIAren irakurleari ez dio ezer askorik esango izen horrek, baina galizierazko prentsa ezkertiar eta ekologistan berehala zabaldu zen albistea, baita medio kontserbadoreenetan ere. Castellano ez zen edonor, Galiziako negozioetan eta politikan igeri egiten inork baino hobeto zekien enpresari coruñarra baizik; Amancio Ortegak ere atsekabea adierazi du "Caste"-ren heriotzagatik, egin kontu.

El Salto hedabidearen Galiziako edizioan, Javier H. Rodríguez-ek artikulu nekrologiko batean marraztu du bere profila. 2005 urtera arte Inditex taldeko lehendakariorde eta kontseilari delegatu izandakoa, Castellano dirutza irabazi zuen Arteixoko oihalgintza enpresa burtsara ateratu zenean. Hortik aurrera ate guztiak ireki zitzaizkion, izan *La Voz de Galicia* egunkari oroahaltsuan, Natuurhousen dietetika frankizian edo, Alberto Nuñez Feijóo PPko buruzagi eta orduan Galiziako presidentearen eskutik, baita Nova Caixa Galicia bankuan ere.

Gaur egun beste alor batek lotzen zuen enpresaria sorterriko lurretara: Greenalia konpainiako akzioen %6 berea zen, Altri multinazionalak Galizian

zelulosa lantegi erraldoi bat eraikitzeko "palanka moduan" funtzionatzen duena. "Inork ez zituen berak bezala ezagutzen Galiziako oligarkiaren zirrikituak eta kapitalismorik basatiena. kontaktu egokia, beharrezko konplizitate", irakur deza-kegu *El Salto*-n.

Altri eta Greenaliak sozietate bat sortu dute elkarrekin, Greenfiber SL, eta haren bidez ari dira *Gama Proiektua* martxan jarri nahian Lugoko Palas del Rei herrian. Bertan, eukaliptotik ateratako zelulosaren bidez lyocell izeneko materiala ekoitzi nahi dute, arropak egiteko zuntz "jasangarri" bat, sarritan Tencel markarekin ere komertzializatu izan dena. Ingurura ez duela kimikorik isurtzen eta biodegradagarria dela, hori diote behinik behin, "biofabrika" bat izango dela.

Hitz hori paperean polita da, errealtatean ez hainbeste; proiektuak berdetik gutxi baitauka eta grisetik asko. Fernando Valladares biologian doktore eta ingurumen ikerlariak -hari buruz gehiago jakin nahi duenak jo dezake 2007. zenbakian egin genion elkarrizketara- oso ondo laburbildu ditu ekarriko litzuzkeen kalteak *Contexto* atarian, *Una injustificable irresponsabilidad* (Arduragabekeria justifikaezina) izenburupean.

Altri Palas del Rein eraiki nahi duen hori, Europako zuntz fabrika handiena litzateke eta 330 hektarea hartuko litzuzke, ingurumen balio handia duen eta desagertzeko arriskuan dauden animalia espezie ugari bizi diren Ulloa eskualdean. Gainera, Lugoko probintzia osoak adina ur kontsumituko luke eta 40 kilometroko eremuari eragingo liokeen kontaminazio lainoa isuriko luke. "Suntsiketa ez da azpiegituraren ingurura mugatuko -dio Valladares-ek-, Galiziako zati handi batera zabalduko da, plantan egunero erabiliko duten lehengaia dela-eta: eukaliptoak".

ESCUMA DA MORTE

Urtero 4.000 hektarea eukalipto prozesatuko dituzte Palas del Rein. Proiektuaren bultzatzaileek etengabe laudatzen dituzte zuhaitz espezie inbaditzaile horren onurak -ur gutxiago kontsumitzen duela eta antzeko gezur borobilak-, baina Galizian aspaldi jabetu ziren eukaliptadien ondorioez: lurra idortzen du, bioaniztasun kaltetu, eta sute gero eta handiagoak eragin, uda honetan bizitakoak bezalakoak.

Ez da harritzekoa, beraz, herritarrek masiboki ateratzea kalera protestan, 2024ko abenduaren 15ean Santiago de Compostelan egin modura: 100.000 lagun baino gehiago elkartu ziren *Altri non lelopean*. *Prestige* petrolio-ontziaren hondamendia salatzeke egindako 2002ko manifestazio historikoez geroztik, Galizian inoiz ikusi den jendetza handiena bildu zen, Ulloa Viva eta Arousa itsasadarren aldeko plataformek deituta.

Palas del Reiko plantaren kontrako borroka sektore asko batu ditu, nola ekologistak, hala arrantzaleak. Egunero ez da ikusten 300 itsasontziz osatutako ontzidi bat Arousako itsasadarra alderik alde blokeatzen... *Por unha ría viva* (itsasadar bizi baten alde) aldarrikatu zuten *bateiro* eta itsaskilariek, kutsadurak itsasadarraren heriotza ekarriko duelako haien esanetan.



Ezkerreko irudian, Arousako arrantzaleen ehundaka itsasontzi Greenpeaceen *Artic Sunrise* izotz-hausle ontziari segika eta itsasadarra blokeatzen, 2024ko ekainean. Eskuinean, Santiago de Compostelan urte bereko abenduan egindako manifestazio jendetsuan mozorro adierazgarriak, Altri eta Greenaliaren paper lantegiak Galizia osoan izango dituen ondorio larriez ohartarazteko.

Ez da esajerazioa, Portugalen ikusita-koa baizik. "Inpresionatzen du arrantza-leentzako babesleku ziren etxolak horrela ikustea, lan gehiago zegoen sasoiatarako; ikustea bideoak hildako arrainekin, portugaldar ekologistek *escuma da morte* (heriotzaren aparra) deitu duten hori dutela". Hala mintzo zaio Ana Loureiro kazetaria *Nos Diario* egunkari galiziarrari, elkarrizketa batean. Delmi Álvarez argazkilariarekin batera ikerketa-erreportajea argitaratu du *Sermos Galiza* astekarian Altriren zelulosa plantaren inguruan eta Portugalen ere izan dira, multinazionalak herrialde hartan egindako barrabaskeriak ezagutzen.

Altrik papera produzitzeko plantak dituen Figueira da Foz, Constância eta Vila Velha de Ródão portugaldar herrietan.

Azkenekoari Biotek izena jarri diote –bai, berriz ere ditzosozko "bio" hitz polita–, eta Loureirak dioenez, arrantzaleak izan ziren lehenak konturatzen Tajo ibaira hondakinak isurtzen ari zela: "Herritarren presioa izan zen Vila Velhako fabrika derrigortu zuena instalazioak hobetzera kutsadura gutxitzeko. Beste frog bat, erakusten duena mobilizio sozialik gabe ingurumen kontrola desagertu egiten dela". Portugalen, eukaliptadi berriak ez landantzeko 2030 urte arteko moratoria onartu zuten.

Sermos Galiza-n gaia sakonean landu dute, titular handietatik haragoko arazoak baitakartza halako azpiegitura batek: "Ura-
ren kontsumoa edo emisioak nabarmendu izan dira, baina badaude oharkabeen igarotzen diren beste arazo batzuk, Ulloa ibaia-

ren egoera larria edo fabrika eraikitzeak ekarriko lukeen derrigorrezko espropiazio kopurua, adibidez", dio Loureirak.

Lyocell modako "bio" etiketaz lagunduta, Altrik eta enparauek lortu dute oraingoz aurrera egitea. 2025eko martxoan Galiziako Xuntak baiezkota eman zion Ingurumen-Inpaktu Adierazpenari. Valladaresek arrazoi: arduragabekeria justifikaezina. Biologoak kontatu digu, mihi gaiztoek diotela, lyocell hitza Inditexeko zuzendari batek aipatu ziola lehen aldiz Xuntako presidente Feijóori, duela bost urte. Geroztik, Inditex proiektutik aldendu da, itxuraz aldendu ere, Ortegak bere lagun "Caste"-ri bidalitako agur gutunak gogorarazten baitigu Galizian negozioak *pouco a pouco* josten direla. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23, Donostia

T 943 420 624

zinkunegioptika.com



AHLEM



Zinkunegi Optikan ikasturte hasierarekin batera **umeei zuzendutako** ikusmen azterketak egiten ditugu.

Ukipen-lenteak, miopiaren kontrola eta ikusmen terapia ere baditugu.

Juanlu Primo

ESKUAK PEDALETAN



DENDAN ZULOAK UTZI DITUEN JENDEA EZ DA IZAN DIRURIK EZ DUEN JENDEA



Bizikleta denda bat dauka Juanlu Primok Bilboko San Frantzisko auzoan: bere gurasoek taberna izan zuten auzo berean. Gurpilez betetako dendan jarraitzen du gustura, auzoan izaten ari diren aldaketen lekuko.

 ONINTZA ENBEITA  EIDER ITURRIAGA / ARGIA CC BY-SA

Garai batean herri guztietan zeuden bizikletak konpontzen zituzten tailerrak, baina denborarekin ixten joan ziren. Nola sortu zitzaizun La Ferro irekitzeko ideia edo aukera?

Nik bizikletarekin neukan harremana zeuk eduki zenezakeena da. Banuen bizikleta bat udaran ibiltzeko, kirol pixka bat egiteko... hori baino gehiago ez. Kontua da lanik gabe gelditu nintzela, eta zerbait nire kabuz irekitzea pentsatzen hasi nintzen. Eskuekin lan egin nahi nuen, eta bizikletetan pentsatzen hasi nintzen, baina aurretiaz ezer argirik izan gabe.

Eskuekin lan egin nahi zenuen eta gehienok hankekin lotuko genukeen zerbaiti ekin zenion.

Hori da. Nire hasierako asmoak hiru zi-

ren: eskuekin lan egitea, neuk bakarrik kudeatzeko moduko espazio bat izatea eta lantokira txakurrarekin joan ahal izatea. Horretan nenbilela, hor beheko ka-lean, erreka ondoan, lokal bat ikusi nuen eta uretara salto egitea erabaki nuen. Orain taberna bat dago lokal horretan, hemen husten joan diren lokal gehi-entan bezala. Bizikleten inguruko ikastaro batzuk egin nituen, eta hasi egin nintzen. Ez dut sekula lotura berezirik izan bizikletekin, 2015ean La Ferro ireki nuen arte.

Urteekin lotura hori gehitu egin da?

Pasioa etorri eta joan egiten da. Nire motibazio handiena lanean jarraitu ahal izatea da. Bizikletak konpontzea gustatu egiten zait. Jendearen nahiaren arabera lan egiten dugu, eta gustatu egiten zait

sortzen den harremana. Bidaia luzeak egiten dituen jendearekin lan egin ahala, esate baterako, halako lanetan espezializatzen joan gara. Bete egiten nau jendeari zer behar duen entzuteak eta asmatzeak. Guk interpretatu egin behar dugu zer den bezeroek behar dutena, eta uste dut hori ondo egiten dugula hemen, ze jendea itzuli egiten da.

Bizikleta modan jarri dela dirudi, baina zuek hemen bestelako bezeroak ere badituzue. Nola lan egiten duzue batzuekin eta besteekin?

Nire ulertzeko moduaren arabera, Bilbo hiri klasista da, eta jendea leiala da bere buruarekin identifikatzen duen denda edo negozioekin. Gure kasuan, batzuek uste dute *pijo*-entzako denda garela eta



Juanlu Primo

BILBO, 1977



Juanlu Primori elkarrizketa bat egin zioten behinola egunkarian. Han kontatu zuen gurasoek jatetxea izan zutela auzoan, eta egun batzuetara neska bat etorri zitzaion dendarra: "Ezetx jakin zer daukadan etxean behinola zakarretatik berreskuratuta?". Jatetxeko kartela zen. Gurasoek lokala saldu zutenean bota egin zuten, baina norbaiti baliagarria iruditut zitzaien. Orain La Ferron dago, auzoaren bizitzaren zati txiki argitsu bat.

beste batzuek La Ferro txatartegia dela. Niri hori gustatu egiten zait! Izan ere, hemen sartzen bazara, gauza bi horiek aurkituko dituzu. Batzuk etortzen dira eta esaten didate bizikleta zaharrak baino ez ditudala dendan, eta hala da: hemen bizikleta zahar asko dago, baina berriak ere badaude, oso garestiak gainera. Denetariko jendea etortzen zait eta oso pozik nago.

Merkatutik kanpo mantendu naiz erosketen kontuan. Urtero ateratzen dira txirrindula berriak, eta gehienetan aurreko urteko berdina izaten dira gauza txikiak aldatuta. Berria saldu nahi baduzu, zaharra eskaintza berezietan atera behar duzu, eta hor lehia handia dago. Enkante horretan sartzea itogarria da epe luzera.

Zaila da logika horretatik kanpo irautea?

Batzuetan bai, baina denda askoren egoera ikusita, ez dakit gu hobeto ez gauden. Konfinamenduaren ostean, adibidez, mundu guztiak erosi nahi zuen bizikleta. Sekula ez genuen halakorik ikusi. Fabrikatzaileek pentsatu zuten beti horrela izango zela, eta orain zer egin behar dute bizikleta horiekin guztiekin? Gorpil horretan sartu direnek urtebete lehenago erosi behar dituzte bizikletak eta gero saltzen saiatu. Nik ez dut ura lepoan dudala bizi nahi.

Bizikleta garraiobide moduan ulertzen dugu?

Gero eta jende gehiagorentzat da hala, baina oraindik ez da pentsamendu orokorra. Gehiago esango dizut: jende askok bizikleta bat erabiltzen du lanera joateko eta beste bat aisialdirako. Beno, bada, lanera joateko 200 euroko bizikleta erabiltzen dute eta hilabeteen bi aldiz erabiltzeko 5.000 eurokoa daukate. Horrek ez du zure aukera ekonomikoarekin zerikusirik. Zuk 5.000 euroko bizikleta bat erosi ahal izan baduzu, izan dezakezu 3.000ko bat lantokira eroso joateko egunero. Bizikletak izan beharrean kotxeak balira, inork ez luke halakorik egingo. Aldi berean, negozio bezala, hazteko aukera handia dugu jendeak

bizikleta garraiobidetzat ulertu ahal. Badago jendea kalkuluak egin dituen, eta kotxea bizikleta elektriko onagatik aldatu duena. Dirua aurrezteaz gain, pisua galdu dutela esaten didate.

Hiriak prestatuta daude bizikleta garraiobide lez erabiltzeko?

Izango dira hiriak prestatuago daudenak, baina Bilboko bidegorri sarea ez da funtzionala. Parisen, esate baterako, sekulako buelta eman dio oraingo alkatetxak zirkulazioari. Autoak eta bizikletak elkarrekin iraun ahal izateko neurriak hartu ditu, eta autoen erabilera jaitsi egin da. Ez dute inor ezertara behartu, baina jendea bizikletan eroso mugitzea neurriak ezarri dituzte. Zirkulazioan ez ezik, airearen kalitatean ere eragina izan du horrek. Orduan, Bilbori begiratzaren badiot, bada, hemen badaude bidegorriak errekararen alde bietan, baina auzoren batera joan nahi baduzu, jai daukazu. Kotxeak 30era joateko muga ezarri zuten, baina gehienak azkarrago doaz eta bizikletan ibiltzeak beldurra ematen du.



**Umea zarenean
bizikletak askatasun
sentipena ematen dizu,
eta uste dut bizikletak
sentipen hori gorde egiten
duela betirako"**

**Konfinamendu
ostean mundu
guztiak
bizikleta nahi
zuela esan duzu.
Burbuila lehertu
ostean, ze bezero
gelditu dira?**

Burbuilen ostean ere beti gelditzen dira bezeroak. Pandemia eta gero, jende gehiago joaten da lanera bizikletan; ez pandemia amaitu berriro joaten zen adina, baina aurretik baino gehiago. Begira, Bilboko Udalak bizikleta elektrikoaren sarea jarri zutenean esaten zidaten kalte egingo zidala horrek, baina beti dago norbait bere bizikleta propioa nahi izango duena. Gauza horiek ondo daude, beste era batera bizikleta hartuko ez lukeen jendeak har dezan. Guk saldu, gehiago saltzen dugu kanpora Bilbon bertan baino; eta hala ere, La Ferro auzoko denda bat da.

Ze harreman daukazue La Ferroko eta biok auzoarekin?

Handia. Dendak La Ferro izena dauka nire gurasoek hemen, San Frantzisko auzoan, izan zuten jatetxearen omenez: La Ferroviaria. Ni hemen bizi izan nin-



Agian azken urteetako gehiegizko turismoak mota konkretu bateko hiriak eta komertzioa eraikitzen garamatza.

Beste norabaitera zoazenean zerbait berezia bilatzen duzu, eta Bilbora bazatoz, errekaren alde honetan daukazu hori. Indautxun ez da jendea luze geldituko beste leku guztietan dagoena dagoelako. Niri ez zait turismo inbasiboa gustatzen, eta saiatzen naiz beste leku batean halakoa ez izaten, baina turistak guztiok gara. Taberna horien arazoa ez dira turistak bakarrik, ordea. Nik uste dut udalak pentsatu zuela Zazpi Kaleak lehertuta daudela eta beste gune bat eskaintzen hasi zirela aisialdirako aukera gisa, eta hau geldi egotetik mugimendu handia izatera pasatu da. Gero egia da auzo honetan onartzen direla beste batzuetan onartuko ez liratekeen gauzak zaratari eta jendeari dagokienez. Dena den, ni auzoan pozik nago: hemen bizi naiz eta hemen lan egiten dut.

Lehen esan duzu Bilbo hiri klasista dela. Seguruenetik euskal gizartea orokorrean hala izango da. Edozelan ere Bilbo asko aldatzen ari da.

Komertzio txikian igartzen da hori?

Komertzio txikiaren kasuan aldaketak txarrerako dira. Duela gutxi Manchesterren egon naiz eta ez dago denda txikiarik. Kozinatutako janaria saltzen duten dendak daude leku guztietan, eta etengabe betetzen dituzte apalategiak. Jendea egun osoan ari da erosten egindako janari hori, eta kito. Londresen lehenengo Z Glovo eta Libero ikusi nituenean, nire buroari galdetu nion ea hori Bilbora iritsiko ote zen, eta iritsi da. Hasieran ideia ona iruditzen zitzaidan diru estra bat behar duen jendearentzat edo ordu gutxi lan egin dezakeenarentzat, baina esplotazioa ekarri du. Komertzio txikia desagertzen

tzen 9-10 urtera arte, eta denda jartzeko lokalaren bila hasi nintzenean, Bilboko beste auzoetan ekonomikoki ezinezkoa zena hemen posible zen. Auzoaren parte sentitzen naiz. Jende askok umea nintzenetik ezagutzen nau. Badira lapurtuko dioten beldurrez etorri nahi ez duten bezeroak, baina nik bizikletak ez ditut etxera eramaten. Nahi duenak hona etorri behar du bila. Nik ez dut hemendik mugitu nahi. Gaztela eta Galiziako migratzaileak zeuden lehen, eta giro horretan hazi nintzen ni. Orain Sahara azpiko eta Magrebeko migrazioa dago, baina auzoak batuta jarraitzen du. Aurreiritziak aurreiritzi, nik bizikletak atean uzten ditut, eta ez dizkidate sekula eraman. Lokal hau

erosi egin nuen, baina lehengo lokala alokairuan izan nuen. Orain lokal hura dagoen moilan, dena taberna da.

Auzoa aldatzen ari da.

Aldaketak ez ditu auzoak eragin, jakina. Taberna asko ireki dituzte eta horrek protestak eragin ditu. Ni moilan nengoenan ez zegoen ezer: Le Club betiko taberna, biandak saltzen dituen denda orain ere badagoena, neu eta gutxi gehiago. Tabernek inpaktu handia eragiten dute auzokideengan kalea hutsik egotetik sekulako jendetza biltzera pasatu delako. Ni ez nago tabernen kontra: nire familiak jatetxea izan du urte askotan. Oreka da kontua.



ari da. Niri tailerrak asko laguntzen dit. Bezero asko ditut komertzio txikia izatea kontuan hartzen dutenak, baina Internet hor dago. Mundu guztia ikusten dut joko horretan, eta geldiezina iruditzen zait. Jendeak deitzen dit zerbait eskatzeko eta itxaron ahal duenak itxaroten dit, eta nik ikaragarri eskertzen dut hori. Baina beste batzuetan pentsatzen dut, zer egingo dute, bada? Beste nonbait aurkitu baldin badute, normalena erostea da. Nik auzoan egiten ditut erosketak, eta gustatzen zait beste jendeak ere aukera hori egitea, baina jende gehiena ez dago horretan.

Tailerrari esker irauten duzu?

Garaiak izaten dira: batzuetan tailerrak ematen dit lan gehiago eta bestee-tan dendak.

Bizikletak egin izan dituzue.

Badaukat lagun bat bizikletako koadroak eskuz sortzen dituenak, eta bion artean egin izan ditugu bizikletak gero guk sinisten ditugun gauzen alde dirua ateratzeko. Open Armsentzat egin genuen kanpaina bat eta La Cuadri del Hospirentzat beste bat. Batzuetan sartzen gara saltsetan: zergatik ez, bada? Hala ere, guk egin dezakegun gizarte lanik handiena, bizikleta lanerako behar duen jende-ari laguntzea da. Glovon eta ari diren langileei sekulako sermoiak botatzen dizkiet. Denak dira autonomo faltsuak, eta neuk esaten diet hartzeko fakturak eta bizikletaren gastuak aurkezteko lan gastu moduan. Gehienek sarean hartzen dituzte aholkulariak eta ez daukate ga-norazko laguntzarik. Askotan ezin izaten digute momentuan ordaindu, baina bizi-kleta lanerako behar duenari utzi egiten diot eraman dezan: ordainduko dit ahal duenean. Ez badiot lanerako tresna bue-ltatzen nola ordainduko dit? Beti ordain-du didate: beti, beti, beti.

Oraindik ere jendearengan konfidantza izan daiteke, beraz?

Gauza bat esango dizut: hemen zuloak utzi dituen jendea ez da izan dirurik ez duen jendea.

La Ferro esan nahi duen guztitik zer da gehien betetzen zaituena?

Hasieran gurasoei eskatzen nien dirua bi-zikletak konpontzeko materiala erosi ahal izateko. Horrela hasi nintzen. Denborarekin ekosistema propioa eraiki dut. Gero gauza bat dago: bizikletak konpontzeak poz han-dia ematen du. Batzuek lanerako bidean hiria gurutzatzen dute bizikletan eta beste batzuek munduari buelta ematen diote, baina denak ateratzen dira hemendik irribarre batekin bizikletaren gai-nean. Umea zarenean bizikletak askatasun sentipena ematen dizu, eta uste dut bi-zikletak sentipen hori gorde egiten duela be-tirako.

Ze galdera egin behar dizkio bere buruari bizikleta bat erosi nahi duenak?

Nik galdera bi egiten dizkiet hona dato-zenei: zertarako erabiliko duzu bizikleta? Zenbat diru gastatu nahi duzu? Oreka bi-latu behar dugu nahi dugunaren eta ahal dugunaren artean. Jendeak ez du nik esa-ten dudana egin behar, jakina, baina nire lana da interpretatzea zer den bakoitzak behar duena. Nik nahi dudana da jendea hemendik atera ostean esatea, "hauxe zen nik nahi nuena". Esate baterako, jende asko lohi-babesen bila etortzen da. Nik galdetu egiten diet ea euria egiten duenean bizi-kleta hartuko duten. Askok ezetz esaten didate, eta orduan galdera da ea zertarako

nahi dituzu lohi-babesak euria denean ez baduzu bizikleta aterako? Denei erakusten dizkiet hemen dauden aukera guztiak, eta gero bakoitzaren zalantzak argitu ahala, behar duena eman.

Auzoa etengabe aldatzen ari da eta hiria ere bai. Zelan proiektatzen duzu La Ferro hemendik urte batzuetara?

Iruditzen zait halako denda edo proiektu gehiago sortu daitezkeela eta gu lehenago-tik egoteak ez du beti balio bezeroei euste-ko. Gure burua ezagutzea ematen jarraitu beharko dugu. Webgunea eramaten didan laguna eta biok, beti ari gara horri bueltaka.

Aldaketak etengabeak izango dira, eta guk ahalegindu beharko dugu aldaketa horiek one-rako izan daitezen. Bai-ta derrigor egin behar ditugunak ere. Denda bera ez dut gehiago hazterik nahi. Bizikle-ta gutxiago izan nahi-ko nituzke dendan eta langileekin harreman ona mantendu. Nik nire aukeren barruan ordain-tzen dut, eta ordaindu deza-kedanaren arabera eskatzen diet

langileei. Mekaniko bat daukat orain oso ona dena, baina atera dakioke zerbait ho-bea. Orduan nik eskaini nahi diot hemen pozik egotea, ze gerta daitezke aurreikus-ten ez dituzun gauzak eta prest egon behar duzu aurrera egiteko. Epe motzean nire helburua dendan gauza gutxiago izatea eta ordu gutxiago lan egitea da, adibidez. Iaz mekaniko gabe gelditu nintzen, eta erotu arte lan egin nuen bezero guztiei erantzun ahal izateko.

Inoiz imajinatu duzu La Ferro Bilbo ez den hiri batean?

Ez.. ●

Lanera joateko 200 euroko bizikleta erabiltzen dute batzuek, eta hilabetean bi aldiz erabiltzeko 5.000 eurokoa daukate"

bertako
igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus



Iritziak

Asimilazio estrategiak



KARMELO LANDA MENDIBE
HISTORIALARIA

Genozidioaren faseak, guztiak larriak izanda ere, une batzuetan eskandalagarriak, zaratatsuak, izan ohi dira, baina beste zenbait unetan isilean garatzen dira, ia oharkabean.

Entzutetsuak dira populu indigenen sarraskia Amerikan, Gernikako bonbardaketa, holokausto nazia... eta eskandalua da, halaber, Gazako sarraskia, sionistak Palestinan egiten ari diren genozidio latza orain bertan.

Baina une horiek izango dute segida. Garaileek prestatzen dituzte, errukirik eta lotsarik gabe, beraien neurrirako *resort, erreserba*, edo eremu kolonizatu eta asimilatuak, genozidio luzearen garaipena eta aro berri itxuraz normaldua ekarri behar dituztenak. Horietan ez da indiar, palestinar edo euskaldun gehiegirik nabarmenduko, marasma ingelesdun edo espainiar kulturaren ozeanoetan sakabanatu eta disolbatuak. Asimilazioa da genozidioaren soluzio finala. Indiarren "arazoari" soluzio finala. Euskaldunon mendeetako matxinadari azken soluzioa.

Hori dela eta, genozidioak toki zehatzetan orain hartzen duen modua txikizio militarra da, baina beste zenbaitetan, gurean, kasu, asimilazio estrategien fasean gaude.

Euskal nortasunaren galera eta asimilazio espainiarra eta frantziarra azeleratu egin dira azkenaldian modu deigarrian. Ez kasualitatez. Lehen estatu

Asimilazioa
geldiarazteko eta aurre
egiteko baldintza
ezinbestekoa dugu
euskal politika
parametro propioetan
kokatzea, ez estatu
zapaltzaile bien mende

espainiarraren eta frantziarraren erasoaldien aurrean erresistentzia eta auto baieztapen euskalduna nabarmentzen ziren kasuetan, orain maizegi asimilazioa, integrazioa eta axolagabekeria nagusitzen baitira. Baina hori guztia indukzioz gertatzen ari da. Aurreko garaiko alderdi abertzaleek zuzendu dute etxe barruan jarrera aldaketa hori, egokitu egin dira sistema politiko-instituzional arrotzeara eta azkartu egin dute asimilazio prozesua.

EAJ oso eroso dago Euskal Herri zatikatu honen atal baten estatu espainiarraren administrazio autonomoa gobernatzen. Ez ditu nazio arazoak mahai gaineratuko, eta horretara behartzen badute ezinbestean, promesa hutsalak egin eta lehengoan jarraituko du. Euskararen egoera larriaz zerbait antolatuko duela-

ko promesa 2027an edo. Estatus politiko berriaz eta erabakitze eskubideaz, kontaktu erronda hasiko duelako promesa... 2026ko udan. Hori bai, dibidenduak berehala eskuratzeko, Madrilen eskatu eta Parisen bereganatu du, modu pribatuan garai kritiko batean euskal ondasun publikoa izan zen egoitza.


Deigarriena, hala ere, garai bateko ezker abertzalearen bira izan da, erresistentziatik eta alternatibatik gaur egun mantentzen dituen posizio politikoetara. Madrileko txandako gobernu espainiar progresistaren aliatu seguru bilakatuta, erlatibizatu egin ditu maila ideologikoan euskal nazioaren zutabeak, euskararen beraren garrantzia erlatibizatuta, bai teoriarik bai praktikan. Batetik, esentzialismoaren aurkako elebitasuna, multikulturalismo eta multilinguismo akritikoak pregonatuta. Bestetik, elebitasunaren izenean, espainiarren eta frantsesaren estatua eta erabilera finkatuta euskal jendartean.

Asimilazioa geldiarazteko eta aurre egiteko baldintza ezinbestekoa dugu euskal politika parametro propioetan kokatzea, ez estatu zapaltzaile bien mende. Horrek euskal herritarren mugimendu organizatua eskatzen du, ahalmen eta botere politikoa eskuratu behar dituen. Nazio mailako elkarrizketa bai, euskaraz eta Euskal Herri osoan, independentziarako bideak prestatzeko moduan. ●

Elkarteen militantziaz



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



MAIDER LETURIAGA

Ez dakit literatura-ikasketak egin ditudanarengatik den, baina nekez onartzen dut hitzen erranahien deformatze ideologikoa. Azken hilabete hauetan, eta bereziki Frantzian Bruno Retailleau Barne ministro denez geroztik, *militante* hitza zentzu arrunt peioratiboan erabilia da. Nik uste nuen hitz horrek erran nahi zuela “pentsamendu baten alde ekiten duen presuna”, eta hala ematen du *Trésor de la langue française* erreferentziazko hiztegiak: “Bere ideiak, bere iritziak gailendu daitezkeen ekiten duena. Adibidez: *erregeza-le militante, errepublikazale militante*”. Baina, egun, hedabide eskuindarrek eta bereziki Barne Ministerioak hedatzen dituzten testuetan, *militante* hitza hitz larri gisa erabilia da, eta badirudi kontraerrana dela, egun, *militante* eta *errepublika* hitzak elkarrekin baliatzea.

Azken etsenplutzat daukat joan de irailaren 17an gertatu zaiona Poitiers-eko Arlette Moreau antzerki konpainiari: ikusgarri “engaiatuak” eta “militanteak” ontzen dituelakoan, estatuko zerbitzuek erabaki dute tropak ez duela “itun errepublikarra” errespetatzen. “Itun errepublikarra” hori 2021eko dekretu baten bidez agertu zen, islamismoari kontra egiteko xedearekin: orduz geroztik, Frantziako edozein elkarte, Kultur Ministeriotik dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, izenpetu

behar duen dokumentua da. Testu ofizial horretan baldintza hauek agertzen dira, besteak beste: elkarteak ez du gorrotora eta bortizkeriara deitu behar eta errespetatu behar ditu Errepublika frantsesaren sinboloak. Azken hilabeteetan, hitzarmen horretaz baliatuz, ekologia edo kultur alorretan hainbat elkarte ttipi eta handi “engaiatu” edo “militanteri” dirulaguntzak kendu dizkiete estatuko zerbitzuek. Ulertzen dudana, azken finean, hau da: gobernu frantsesak antierrepublikazaletzat dauka “bere ideiak, bere iritziak gailendu daitezkeen ekiten duten” elkarteak.

Ipar Euskal Herrian Euskal Kultur Erakundea (EKE) dago: elkarte da, baina haren gobernantzan daude bai euskal kultur elkartetako hamaika ordezkari (dantza, kantua, musika, antzerki, bertsolaritza eremuetatik etorriak), bai erakunde publikotako hamar ordezkari (Hirigune, Departamendu, Eskualde eta Estatutik). Elkarte horren bazkideak dira berrehun bat euskal kultur elkarte, erran nahi baita, Ipar Euskal Herriko euskal kultur elkarte gehienak. Pentsa daiteke goiz ala berant berrehun elkarte horien “engaiat-

mentu” eta “militantziaren” errepublikazaletasuna galdekaturako duela gobernuak, *errepublika* hitza bera desitxuratzen segitzen baldin badu. Anartean, estatuak, bere zorren izenean, %15 apaldu nahiko lioke bere dirulaguntza EKeri, Frantziako beste kultur elkarte guzietan bezala.

Batzuek diote Frantziako Estatua gatazkan sartua dela, oro har, elkarrekin. *L'Etat contre les associations. Anatomie d'un tournant autoritaire* [Estatua elkarrekin kontra. Bihurgune autoritario baten anatomia] saiakeran (Textuel, 2025), A. Delfini eta J. Talpin soziologoek argitaratzen dituzte beren ikerketa beldurgarriak: haien ustez, estatu frantsesak murrizten du espazio publikoa eta kontrolatu nahi ditu elkarteak –adierazpen askatasun lekuak direnak–. Bi adituek deitzen dituzte arlo guzietako elkarteak (osasun, kirol, bizitegi, lan, ekologia, hezkuntza, kultura) elkarretara daitezkeen, zentzu horretan “politiza” daitezkeen, bata bestea duinki sustengatzeko, Errepublikaren ohoretan. Egingarria den, ez nekike erraten, baina beharrezkoa litekeela segur naiz. ●

Zirrara



KARMELE GISASOLA
ZENIKAZELAIA
HERRI KIROLARIA

Iraila, errutinara buelta, askorentzat ikasturte berria eta horri dagozkion zirrarak: ikasturtea norekin konpartitu, nor izan alboan, zer ikasi, nola eta nora joan... Batzuentzat, esperientzia berriak bizitzeko lehen aldia.

Aldiz, beste batzuentzat esperientzia berririk ez, lehengo berdinerara buelta. Inguruko berdinak, toki berdina, ezer berririk ez. Gauza asko lehen aldiz bizitzean, zirrarak hartzen dira, aldiz, egoera behin eta berriz errepikatzen hasten denean ez du sentazio berririk sortzen.

Aurten, bigarren aldiz, Boise-n ospatzen den jaialdira joateko aukera izan dut. Aurrekoan bezala, herri kirolean, baina aurrekoan ez bezala, beste modalitate batean, aizkoran. Banekien non egingo genuen lo, hiria nolakoa zen, non egingo genituen herri kirolak... Hortaz, zirrara handirik ez dut sentitu momentu askotan. Baina bai, ordea, beste egoera batzuetan.

Munduaren beste puntan egon arren, Euskal Herrian nekez lortzen diren gauza batzuk lortu ziren. 4.000 pertsona baino gehiagoren aurrean ordu eta erdiko herri kirol saioa eskaini genuen; beste horrenbeste jenderentzat bi ordu baino gehiago irauten duen euskal dantzen emankizuna eskaini ziguten; euskal kontzertuetan jendeak dena eman zuen, eta horiek guz-

tiak ikusteko, jendeak sarrerak ordaindu zituen. Ez ziren dohainik izan.

Boiseko kaleetan ezin da alkoholik edan, hortaz, euskal etxearen inguruko kaleak itxi zituzten eta bertan sartzen zen pertsona orori (berdin zioen 25 urte edo 70 urte izan) NANA eskatzen ziguten. Arratsalde batean, euskal etxearen inguruan nengoela, gizon batek kasu egin zidan eta berarekin zegoen emakumea aurkeztu zidan, hau esanez: "Gu ere Gisasola gara". Gizonak aipatu zidan bera Ibarrangelukoa zela, baina emakumea amerikarra zela. Segituan, emakumea euskaraz hasi zitzaidan hitz egiten. Momentu batez, pentsatu nuen Euskal Herrian bizi zela eta gerora Ameriketara joana izango zela, baina ez. Bere birramama joan zen Euskal Herritik Ameriketara, artzain batekin ezkondu zelako. Eta hiru belau-naldi geroago, beraien familian euskarak jarraitzen zuela ikusi nuen. Eta noski, ez zen familia bakarra. Horrelako beste batzuekin egoteko ohorea izan nuen. Ezagutzen nuen familia oro zirrarak entzuten nuen. Eta bai, ohorea diot, zeren Euskal Herrian bizi den askok ez baitio baliorik ematen dugunari.

Eskerrak baden euskaldunik, Euskal Herrian bizi ez denik, dugunari balio ematen dionik. ●

Palestinarrainoko olatua



ARANTZA GUTIERREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Ikasturte berriarekin batera, EHU Palestina plataformako kideok berriro batzen hasi gara, ikasgela, ikerketa eta gainerako unibertsitate-jardueretan Palestinan Israel egiten ari den genozidioa eta horren konplizeak salatu eta baztertzeko. Abiatu ginenean oso bakarti sentitu arren, elefantea mugiarazi ahalko genuen konbikzioa genuen, eta, epela bazen ere, lehenengo adierazpen bat lortu genuen. Aldi berean, Espainiako Estatuko zein nazioarteko beste unibertsitateekin sareak josten hasi ginen, salaketa eta elkartasun ahotza campusetan anplifikatzeko.

Orain, Errektoretzak beste urrats bat egin du, eta hainbat ikerketa atze-

ra bota ditu hartutako konpromisoari eutsita. Ez dagokit niri horren balorazioa egiterik, baina gogoeta hona ekarri nahi dut, EHUn ez ezik iritzi publikoan ere nabaritzen baitut aldaketa. Batzuei gero eta zailagoa egiten zaie beren txepelkeria –isiltasun konplizea ez bada– justifikatzea, nazka adierazten duen herriaren elkartasun oihua kriminalizatzea, edo enpresa batzuen jarduna defendatzea.

Hau idazten ari naizela, Gazarako ontzidian dut bihotza, mundu osoan milaka pertsonak bezala, eta badakit, erasotzen badute, kaleak beteko ditugula, Palestinarekiko elkartasun olatua tsunami geldiezina baita. ●

Baso suteak eta begirada kontserbazionista



GORKA MENENDEZ
MILITANTEA, NEKAZARIA
ETA BOTANIKOA

Suaren presentzia naturan milioika urtetan izan da (gizakion agerpena baino askoz lehenagotik). Horregatik, ohikoa da landare askok suaren aurrean adaptazio ugari edukitzea. Gure inguruan arruntak diren arteek eta amezek, adibidez. Baita txilar askok eta otea bezalako sastraka lekaleek ere. Badaude landare batzuk erretzea su baten ondoren aktibatzen dutenak. Hots, sua beharrezkoa dute modu egokian ugaltu ahal izateko. Alepo pinua, itsas pinua edota estrepak (*cistus* generoko espezieak), landare pirofiloak dira. Erraz eta arin su hartzeko diseinatutako landareak dira: askok konposatu sukoiak dituzte hosto eta azaletan. Beraz, ekosistema batzuetan (Mediterraneo eremukoak bereziki) sua erabat ekidin ezina da, landare batzuentzat beharrezkoa. Hori horrela izanik, zein izan behar da kudeaketa irizpidea, bai ala bai erreko den eremu batean? Niri bi aukera okurritzen zaizkit: bat, sua ekiditen saiatzen bagara, biomasa metatuko da eta lehenago edo geroago itzelezko sutea gertatuko da. Edo bi, maiztasun handiagoarekin su kontrola-

Mendiei sua eman behar diegu ekosistemak babesteko eta sute katastrofikoak ekiditeko? Ez edozein modutara eta ez hori bakarrik, baina bai

tu eta txikiagoak egin, su/biomasa oreka maila baxuagoan mantentzeko.

Historikoki, nekazaritza komunitateak horren jabe izan dira eta sua eta abeltzaintza erabili izan dituzte paisaia kudeatzeko: maiztasun jakinarekin egindako suteek paisaia oreka eraiki dute eremu askotan. Gurean ikusten ditugun belardi eta sastrakadi habitat gehienak baldintza historiko horien emaitza dira, eta balio ekologiko handikoak, gainera. Gaur egun, orde, sua deabrutu eta debe-

katzeko joera orokortu da eta abeltzaintza estentsibo gero eta gutxiago dago. Ondorioz, babestu nahi ditugun habitat batzuk degradatzen doaz eta biomasa mendietan metatuz doa.

Orduan, mendiei sua eman behar diegu ekosistemak babesteko eta sute katastrofikoak ekiditeko? Ez edozein modutara eta ez hori bakarrik, baina bai. Askorentzat sakrilegioa izango da hori, eta normala da, begirada kontserbazionista hedatuta baitago gaur egun. Iruditegi horren arabera, gizakia ekosistemen dinamikan aldagai arrotza da beti, eta ondorioz, giza esku hartze oro (zer esanik ez mendiari sua ematea!) "oreka naturala" hausten duen arazoa da. Horrek guztiak, gizakiok ukitu gabeko eremuak hoberen kontserbatutakoak direla pentsatzera garamatza. Bada, gizakia eta naturaren arteko haustura hori, modernitate kapitalistaren eskutik orokortzen dena, arazo ekologiko eta gatazka sozialen iturri bilakatu da. Suteen afera horren erakusle da: fenomeno konplexua da, faktore ugari zeharkatua, eta gizakia-natura haustura darama bere erroan. ●

bat Soziolinguistika aldizkaria

BAT 135. ZENBAKIA FAMILIEN HIZKUNTZA-POLITIKA



- **OLATZ ALTUNA ZUMETA, JAIME ALTUNA RAMIREZ ETA JOSU OZAITA AZPIROZ** > Bilbon euskaraz hazi. Haur txikiak dituzten gurasoen hizkuntza-praktikak eta bizipenak.
- **MAITE GARCIA-RUIZ** > Euskararen jarraipena sustatzeko familien estrategiak.
- **EIDER SARAGUETA ETA OIHANA LEONET** > Helduen ikuspegitik udalerrri euskaldunetako haurren euskara erabileraren mapa osatzen.
- **MAITE GARCIA-RUIZ, IBON MANTEROLA ETA ANIK NANDI** > Herritartasun soziolinguistikoa gaztelania nagusi den eremu eleaniztuneko familietan.

harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro

- Lau hilez behin, BAT aldizkaria etxean bertan.
- Lau hilez behin, BAT aldizkaria PDFn eta EPUB-en jaso.

<https://bat.soziolinguistika.eus> / 943 592 556
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus

GUUREAN atala

- **AUXKIN GALARRAGA** > Hizkuntzen kudeaketa korporatiboari buruzko teoria eta praktika Euskal Herrian: euskararen kudeaketarako zergatiak eleaniztasunaren orokortze garaietan.
- **LIONEL JOLY** > Euskararen bizitasun digitala vs euskararen etorkizuna - "hoc tempore obsequium amios, ueritas odium parit".



MONDRAGON Kilometroak eginez

MONDRAGONen kooperatibok
bidea egin dugu euskal kultura,
ohiturak eta hezkuntza babesten.
Aurten Elgoibarren dugu hitzordua.

www.mondragon-corporation.com



salto-saltoka
KILOMETROAK 2025 ELGOIBAR

EUSKARAREN PERIFERIAK

Zer egin beheranzko eskailera mekanikoetan gorantz bagabiltza

Ertzetatik aztertu dute hizkuntza UEUk antolatutako *Euskararen periferiak* jardunaldietan. Euskarak dituen testuinguru oztopatzaileez mintzatu dira Beñat Garaio HABEko ikerlaria, Iker Villa abeslaria eta aktorea, Diego Pallés EHUko ikerlaria eta Maialen Gago Guka mugimenduko kidea. Erdalduntze makina, oztopoei aurre egiteko estrategiak, komunitatearen garrantzia, pribilegioak eta tentsioak izan dituzte hizpide.

 OLAIA L. GARAIALDE

Testuinguru oztopatzaileak euskal hiztun komunitateak boterarik ez daukan espazioak dira. Hor-taz, euskaraz bizitzeko saiakera, korrontearen aurka egitea da, edo Iñaki Lurrebasok dioen bezala, beherantz doazen eskailera mekaniko batzuetan gora egiteko saiakera". Hitz horiekin deskribatu ditu testuinguru oztopa-

tzaileak Maialen Gago Fruniz Bilbon diharduen Guka euskaltzaleen mugimenduko kideak. Bilbotarrak, Beñat Garaio Mendizabalek, Diego Pallés Lapuentek eta Iker Villa Barajak, nork bere bizipenak eta egindako ikerketak hartu dituzte oinarri, eta kolektiboan egindakoaz ere aritu dira hizketan. Denek aipatu dute behin baino gehiago-

tan korrontearen aurka sentitu direla. Gago kasu, deustuarra (Bilbo) eta Gukako kidea da. Bilboko euskaltzaleen "plaza askea" da Guka. Kezkatik sortu zela kontatu du: "Bilbon euskararen aldeko gauza asko egiten ari ziren, baina gauzak, praktikak eta diskurtsoak norabide berean jartzeko eta indar guztiak batzeko beharra zegoen". Horrekin



Irudi hau Joseba Larratxek LARRUNen 2818. zenbakiaren azalerako egin zuen 2023an ('Euskara: aurrera ala atzera goaz?'). Azalak Iñaki Lurrebaso soziologoak erabili ohi duen metafora irudikatzen du: euskaraz bizi nahi duen komunitatea korrontearen aurka dabil, eskailera mekanikoetan kontrako norabidean bezala.

“Gizartearen eta familiaren partetik ez badago inolako heziketa soziolinguistikorik oso erraza da bakoitzak jarrera euskarafoboak barneratzea”

Diego Pallés Lapuente,
jatorri espainiarreko
gurasoak dituen gasteiztarra

“Zure hizkuntzan egiten duzunean musika, kasu honetan euskaraz, uste dut mezu bat bidaltzeko izan behar dela”

Iker Villa musikaria,
Barakaldon jaioa eta
Gernikan bizi dena

“Euskararen aldeko hautua egin behar dugu, baina ahaztu gabe mila oztopo daudela”

Maialen Gago,
Guka (Bilbo) euskaltzaleen
mugimenduko kidea

batera, aztertu nahi dute zer gertatzen den testuinguru oztopatzaileetan eta zeintzuk diren trabak eta zailtasunak: “Euskararen aldeko hautua egin behar dugu, baina ahaztu gabe mila oztopo daudela”.

Bizkaiko beste periferia batetik solastatu da Villa. Gaur egun Gernikan bizi da, baina Barakaldon sortu eta hazi zen. Gernikarekin alderatuta, egunerokoan Barakaldon euskara “askoz gutxiago” entzuten dela dio. Urtez urte bere auzoko egoera “asko hobetu” dela uste duen arren, testuinguru oztopatzaileetat du Barakaldo: “Gernikan bestelako naturaltasun batekin egiten dute euskaraz”. 2009an Revolta Permanent izeneko rap taldea sortu zuen Iker Aginaga, Aitor Abio eta Mikel Becerra musikariekin batera: “Uste dut garai hartan euskaraz musika egitearen aldeko hautua oso arraroa zela”.

Garaio soziolinguista eta ikertzailea da, eta euskararen biziberritzea, hizkuntzen jabekuntza eta hizkuntza lankidetzara dira bere ikergai nagusiak. Gasteiztarra da, eta guraso euskaldunak ditu: ama arnasgune batean jaio zen, eta aitak guraso izan baino lehen ikasi zuen euskara. Gasteiz testuinguru oztopatzailea dela sentitzen du, baina bere testuinguru zehatza kontuan hartuz gero, zalantzak sortzen zaizkio: “Etxe militante batekoa naiz eta D ereduan ikasi dut. Orduan, zein puntura arte da testuinguru oztopatzaile bat niretzat?”. Horregatik, uste du aniztasunetik aztertu behar direla testuinguruok. Kontatu duenez, Boisen (Amerikako Estatu Batuak) Erasmus moduko bat egiten ari zelarik aktibatu zen euskararen alde: “Han ikusi nuen benetan zer den testuinguru oztopatzaile bat eta zein lan egiten zuten ondarea, nortasuna eta hizkuntza zaintzeko”.

Pallés ere gasteiztarra da, eta bere gurasoak Espainiatik etorritako migratzaileak dira. D ereduan sartzea erabaki zuten, euskarak lan aukerak hobetzeko balio zuen diskurtsoa zegoelako. Kontatu du “oso dezepzionatuta” dagoela jasotako heziketa soziolinguistikorekin: “Niregan zein ingurukoen artean oso nabarmenak ziren euskararen aurkako jarrerak. Hezkuntza sistematik, konturatu gabe eta naturalizatuz, euskararen aurkako iritziarekin atera nintzen. Gizartearen eta familiaren partetik ez badago inolako heziketa soziolinguistikorik oso erraza da bakoitzak jarrera euskarafoboak barneratzea”. Madrilen

bizi zelarik, bertako lagunek arreta eman eta euskarafobia zela esan ziotenean, gogoetatzen eta euskalgintzan murgiltzen hasi zen. Uste du “premiazkoa” dela ikerketa soziolinguistikoak egitea: “Testuinguru oztopatzaileak ez dira gutxi batzuk bakarrik. Euskal Herria bera testuinguru oztopatzaile bat izango da euskara hutsean bizitzea ezinezkoa den bitartean”.

Gasteiz periferia eta testuinguru oztopatzaile gisa duen arren, testuingurua “oso pribilegiatua” dela sentitzen du. Bi abantaila nagusi nabarmendu ditu: ofizialtasuna eta erreferente izateko aukera: “Ofizialtasunak berez ez ditu gazte euskaldunak edo euskara gaitasunak dituztenak sortzen urtero. Halere, euskararen aldeko diskurtso sozialean adostasun lauso moduko bat sortzen du. Gainera, ondoan ez daukagu konparatzeko inguru euskaldunagorik”. Alabaina, trabak gailentzen direla uste du.

ANIZTASUNA ARDATZ

Ofizialtasunean eta testuinguru oztopatzaileetan dagoen aniztasunean jarri du arreta Garaio. Azpimarratu du ez direla Trebiñu (Araba) bezalako enklabeak ahaztu behar. Uste du giro sozial berean sortu diren bi pertsonen euskararekiko oso jarrera desberdina izan dezaketela: “Gaur egun nik ez dut ia gaztelaniaz egiten eta nire gaztelania minimo historikoetan dago. Kontziente naiz salbuespena dela. Eskolako prozesua nirekin batera egin duen txikitako lagun batek oso bestelako hizkuntza erabilera dauka. Euskara ia ez du erabiltzen”.

Horregatik, uste du ezaugarri asko hartu behar direla kontuan; esate baterako, nolakoa den bakoitza, norberaren gaitasun linguistikoak, bakoitzak nola erantzuten dion estres linguistikoari eta zein tresna dituen gatazka eta tentsio uneetan. “Iurrebasok gaitasun erlatiboaren garrantzia aipatzen du bere tesian.

Villak “zeharo desberdin” bizi du bere prozesua. Azpimarratu du D ereduan ikasita ere, ikasleek nabarmen ikusten zituztela trabak. Euskaraz ikasi arren, “pila bat” kostatzen zitzairen lagunen artean euskaraz aritzea: “Giroa aldatu zuena esplizitatu gabeko itun moduko bat izan zen. Denborarekin jarrera hori naturalizatu egin zen”. Musikari dagokionez, duela hamabost urte inguru, Barakaldon euskaraz musika sortzeko hautua egitea ezohikoa zen, eta erreferente “gutxi batzuk” zituzten



Ezkerretik eskuinera, Diego Pallés, Maddi Kintana (moderatzaila), Maialen Gago, Beñat Garaio eta Iker Villa, UEUK joan den ekainaren 30ean Gasteizen antolatutako mahai-inguruan.

Euskal Herrian; esate baterako, Selekta Kolektiboa, 121 krew eta Norte Apache. “Gaur egun gazte batek Barakaldon talde bat sortu nahiko balu uste dut erreferente gehiago izango lituzkeela. Ez dut esango hobeagoak edo txarragoak, baina gehiago bai”, esan du Villak.

Euskal kulturaz orokorrean ere mintzatu da. Uste du eskaintza “pila bat” aberastu dela estiloan zein kopuruan, baina azken aldia euskara kanpora ateratzea dutela helburu proiektu askok: “Zure hizkuntzan egiten duzunean musika, kasu honetan euskaraz, uste dut mezu bat bidaltzeko izan behar duela. Helburu bat eduki behar du Euskal Herrian, euskaldunen, eta euskal herritarren artean. Ez dago gaizki *La revuelta* [Espainiako telebista kate publikoko saio bat] euskarazko kantu bat egitea. Oso ondo dago, baina begirada, batez ere, testinguru oztopatzaileetan eduki beharko genuke. Azkenean interesa hemen egon behar da”. Aspalditik ez da Barakaldon bizi, baina gustatuko litzaioke jakitea zer-nolako egoera da goen gaur egun.

Bilbo erdalduntze makina handi baten gisan irudikatu dute Gukako kideek: “Euskaraz bizi nahi dutenek, eta baita erdaldunek ere, erdalduntzera daramatzan prozesu bat bizi dute”. Bost mekanismo identifikatu dituzte: aisialdi eskaintza erdalduna, euskara ikasteko zailtasunak, hezkuntza ez-formal erdalduna, euskararen kontrako diskurtsoak eta komunikabide sistema erdalduna. “Horren kontrako alternatiba bat pentsatzen ari gara”, esan du Gagok.

Gukak emandako datuen arabera, 2024an Arriaga Antzokiko euskarazko eskaintza %20 baino ez da izan. Horren %37 Loraldiaren programazioa da. Gazte Euskaltzaleen Sareak dioenez, Bilboko Udalaren webgunean dauden helduentzako aisialdi jardueren %97,5 gaztelaniaz dira. Pantailak Euskaraz eta Zinemak Euskaraz egitasmoek diote Euskal Herriko zinemetako emanaldien %1 baino gutxiago izan dela euskaraz 2024an.

KONTZIENTZIA, MOTIBAZIOA ETA ATXIKIMENDUA

Euskarazko testinguruetatik kanpo

euskaraz aritzen jarraitzeko oztopoez eta estrategiez ere eztabaidatu dute. Kezka adierazi dute maiz modu instrumentalean irakasten delako euskara, eta ikastetxeetara mugatzen delako. Pallésen arabera, faktore asko hartu behar dira kontuan; hala nola traba instituzionalak eta demografikoak: “Pertsona askorentzat oso zaila da sare euskaldun bat sortzea. Eta askotan gertatzen da, euskaraz ikasi arren, ez badituzu bi gazte inoiz entzun euskaraz, zure hizkuntzarekiko pertzepzioa oso desberdina dela”. Horregatik, aitortu du “oso zaila” dela harreman sare euskaldun autonomoak edo espontaneoak ez dauden lekuetan gazteek euskaraz aritzearen aldeko kontzientzia garatzea.

Uste du kontzientzia lantzeaz gain, motibazioa ere “nahitaezkoa” dela: “Pertsona batzuek kontzientzia izan dezakete, euskaraz ez egin arren, ahalbidetu dezakete besteek hitz egitea, eta espazio horretan babesle izan daitezke. Orduan, ez da soilik ez zaitudala txarto epaituko, baizik eta sustatu egingo dut”. Zentzu horretan, euskara biziberritzeko

estrategietan, lehen, familiako transmisioa azpimarratzen zen, eta gaur egun kontzientzia eta motibazioa.

Pallésekin bat egin du Gagok. Nabarmendu du beharrezkoa dela euskaraz egitea arrunta izango den guneak sortzea eta beste kontzientzia bat lantzea. Adibidez, Deustuko futbol taldea oso estrategikoa izan daitekeela iritziz dio: "Gazteentzako berebiziko espazioa da eta entrenatzailea gazteentzat munduko gauzarik onena da. Horrek euskaraz funtzionatuko balu, beste testuinguru batean egongo ginateke. Hori ere erdalduntze makinaren adibide bat da". Uste du "berebizikoa" dela euskaraz bizitzea ezinezkoa den lekuetan euskararen alde egitea, estres linguistikoa pairatzeko hautua egitea, eta tinko mantentzea.

Euskara pribilegioarekin lotzearen arriskuez ere ohartarazi du eta kritikiko agertu da: "Nik, adibidez, D ereduan ikasi dut 18 urte bete arte, eta orain 29 ditut. Klasekide batzuekin egiten dut topo eta ez dira gai euskaraz aritzeko. Hamaiika urteotan gaitasuna, erosotasuna edo dena delakoa galdu dute. Haiek ez bezala, nik espazio batzuk eraikitzeke hautua egin dut". Horregatik, euskaraz aritzea euskaraz bizitzeko eskubidearekin lotu du, eta pribilegioa, hizkuntza-oztopoen aurrean erdaldunez moztaratu eta hiztun erdaldunak dituen pribilegioak baliatzearekin. Azpimarratu du Bilboko Kale Nagusian ibiltzean bi aukera daudela: euskararen aldeko hautua mantendu eta "etengabeko talkan" aritu edo erdaldunez moztaratu eta beste pribilegio batzuekin aurrera egin: "Esaten dute ezin dela euskaltzale-tasuna feminismoarekin alderatu. Nire iritziz, apur bat antzekoa da: Gabonetako afarian nire izebak esaten didanean noiz izanen ditudan haurrak edo noiz ezkonduko naizen. Bi aukera ditut: kon-

frontatzea edo esatea, 'Oraindik ez, kar-kar-kar'".

Aipatu du batzuetan estrategia linguistikoa izan ohi dela "izua zabaltzea", eta datu linguistikoa txarrak direla esatea. Hizkuntzarekiko atxikimendua lantzeko hori baino estrategia "hobeak" daudela iruditzen zaio: "Cira Crespok dio eskaintzen duguna ez dela hizkuntza bat, baizik eta aske biziko den eta eskubide guztiak izango dituen herri bateranzko pasabidea. Uste dut bestelako herri bat amesteko ideiatik atxikimendua areagotu daitekeela".

"Pribilegioak ditut gizon zuri klase ertainekoa naizen heinean, baina ez euskalduna izateagatik, edo ez behintzat hainbeste"

Beñat Garaio,
ikertzaile eta soziolinguista
gasteiztarra

KOMUNITATEAREN GARRANTZIA

Tentsioak, pribilegioak eta beste ideia batzuk agertu dira solasaldian, eta Garaioak inposaketan ere jarri du arreta: "Iruditzen zait batzuetan ez dugula onartzen edo bazter batean uzten dugula badoela nolabaiteko gatazka linguistikoa

eta inposaketaren mamua". Euskararen kontrako diskurtsoak "oso erraz" barreiatzen direla dio, eta gizarte osoan eragiten dutela. Euskara pribilegioarekin lotzearen kontra borrokatzea aldarrikatu du: "Min handia egiten digu. Pribilegioak ditut gizon zuri klase ertainekoa naizen heinean, baina ez euskalduna izateagatik, edo ez behintzat hainbeste".

Gaineratu du hizkuntzekiko harremanak eta hierarkiak aldatu egin direla, eta geroz eta hizkuntza gehiago nahasten direla. Arnasguneetan egindako ikerketa bat aipatu du, zeinetan ikusi zuten Azpeitian (Gipuzkoa) korearrez kontsumitzen zutela hainbat eduki eta Aramaion (Arabia) italieraz: "Elkarriketetan hizkuntza horiek sartzen badira, pentsa gaztelania eta ingelesa". Arnasguneetan arreta jartzeaz gain, itoguneei erreparatzea beharrezkoa dela uste du. Horretarako, euskalduna izatearen eta identitatearen kontzeptuak "zabaltu" behar direla argudiatu du: "Gure hiztun komunitatera etorri nahi duen edonork gure komunitatean ateak zabalik izan ditzan, eta lehenengo momentutik gure parte izan dadin, harrera komunitate bat izan behar gara. Protokolo ez idatzi bat behar dugu eta euskaraz hitz egiteko aukerak, erraztasunak eta baldintzak eskaini".

Mahai-ingurua bukatzeko, ideia bana partekatu dute. Gagok herrigintzatik martxan jartzen diren proiektuak laguntzeko eta ematen dituzten emaitzak neurtzeko tresnak eskatu ditu. Villak kontzientzia nola piztu daitekeen galdetu du. Proiektuak aurrera eramaten baldin badira, aukerak eta egonkortasuna behar direla uste du Garaioak. Azkenik, Pallések azpimarratu du kontzientzia lantzeaz gain, ekintzen bidez gauza "asko" aldatu daitezkeela: "Komunitatean egin behar dira gauzak, eta horretarako, askotariko espazioak sortu". ●



HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara...eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupéry



Zientzia Klik

*klik egiten
dizuten
zientzia-
planak*



**Leku guztietan dago zientzia, eta orain
leku bat dago zientzia guztiarentzako:**

ZientziaKlik.euskadi.eus



ZientziaKlik
KULTURA ZIENTIFIKOKO AGENDA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE
ETA BERRIKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE CIENCIA,
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN

Innovamat

Batzuek maitatzen eta besteek mesfidati begiratzaren duten matematika metodologia

Batzuentzat, erakargarria, motibagarria, parte-hartzailea eta dinamikoa; besteentzat, nahasgarria, konplexua, zentzu pedagogiko argirik gabeko jolasa. Matematika ikasteko Euskal Herriko gero eta ikastetxe gehiagotan sartzen ari den Innovamat metodologiak iritzi kontrajarriak, eztabaida eta zalantzak eragin ditu hura erabili duten eskoletan.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Bizitza guztia daramate matematikak gaizki irakasten" esana du Innovamat proiektuaren sortzaile Andreu Dotti-k. Filosofia horri tiraka sortutako proposamena da Innovamat, enpresa pribatu batek 2017an Katalunian abiatutako irakaskuntza eredua, dagoeneko hainbat herrialde-tako ikastetxeetara heldu dena (1.720 eskola inguru Espainiako Estatuan). Matematikak duen fama txarrari buelta eman nahi diote, ukitu dibertigarria erabilita.

Eskola publiko nahiz itunpeko, Euskal Herriko ikastetxe gero eta gehiagok zabaldu dizkiote ateak Innovamati, baina hemengo esperientzian barneratu aurretik, bidaiatu dezagun Kataluniara, enpresa sortu zen eta Innovamat aplikatzen urte gehien daramaten lekura: Katalunian metodologia horrekin gustura jarraitzen duten ikastetxeen eta ase ez dituen eskolen esperientziak bildu ditugu.


Innovamatekin
pozik diren irakasleei
inportantea iruditzen
zaie ikasleak egiten ari
diren horren gainean
pentsatzen jartzea

ZER DA INNOVAMAT?


Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hartzen ditu Innovamatek. Sortzaileen euren arabera, orain arte memorizazioan oinarritu da matematika eta konpetentzietan oinarritutako eredura igarotzea da asmoa. Alegia, batetik, behin eta berriz nabar-

mentzen dute abiapuntua dela "ikasleak ulertzea lantzen dituen edukiak, egiten ari denaren inguruan gogoetatzea. Ez da nahikoa zatiketak egiten jakitea, zatiketa zer den ulertzea beharrezkoa da, zatiketa hondarrak zer esan nahi duen ulertzea". Bestetik, "trebetasunak eta konpetentziak bereganatu ahala, ikaslea bera aktiboki jakintza eraikitzen joatea" dute bide-orri. Horrek zer esan nahi duen? Ikasleak joan behar duela atzematen eta deskubritzen ongien datozkion estrategiak, erronka matematikoak gaindituz.

Eta teoriak nola hartzen du lur gelan? Ikasleen parte-hartzea eta elkarriketa sustatuz, esperientziazioan eta manipulazioan oinarritutako saio eta ekintzak proposatzen ditu Innovamatek, bakarka eta taldeka. Marrazki bizidun bidezko azalpen-bideoak ere erabili ditzake irakasleak. Saio horietan ikasitako edukiak praktikatzeko, aplikazioa sortu du proiektuak, ordenagailu aurrean lantzeko: bideo-



Kenketak, Innovamaten eredia erabilia.



jokoetatik elikaturiko formatuan, jolasa bailtzen pantailan hainbat ariketa egingo ditu ikasleak, eta ariketa bakoitzean lortzen dituen emaitzen arabera, algoritmoak ariketa batzuk edo besteak jarriko dizkio, maila haurren erritmora egokituz.

Adibide bat: Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan, pantailan duen ariketa asmatu duen 6-7 urteko haurra zorionduko du marrazki bizidun batek, eta mailak gainditu ahala izarrak lortzen joango da; akatsa eginez gero, aldiz, izarrik gabe geratuko da.

Aplikazioak, biltzen doan datuekin, ikasle bakoitzaren txosten pertsonalizatuak sortzen ditu irakaslearentzat, ikaslearen garapena erakusteko.

ALDE...

Behingoz matematikak maite dituztela ikasleek, erakargarri eta motibagarri suertatzen zaiela Innovamat haur eta gazteei. Hala diote Bartzelonako probintzian da goen Els Vinyals eskola publikoko hezitzaileek. Didaktika parte-hartzailea dela azpimarratzen dute, dinamikoa, aktiboki ari direla lanean ikasleak, eta erronka eta deskubrimendu bidez ikasten doazela, euren kabuz: "Ez dute akatsa egiteko beldurrik, ez dira blokeatzen". Innovamatekin pozik diren irakasleei inportantea iruditzen zaie ikasleak egiten ari diren horren gainean pentsatzen jartzea. Ikasketa memoristiko hutsak ez du zentzurik, askoz logikoagoa da lehenengo ikasleak eragiketa

matematikoa ulertzea, eta gero praktikatzea, argudiatzen dute.

Aplikazio gamifikatuak –hots, jolasaren teknika ludikoak aplikatzen dituen aplikazioak–, darabiltzan algoritmoen esker, ikasle bakoitzaren garapen eta erritmora egokituriko ariketak eskaintzen ditu, hobe behar duen horretan sakonduz eta ikasketa indibidualizatuz. Hori ere lehenesten dute hezitzaileek, baita ikaslearen segimendua eta ebaluazioa errazten dituela ere, ikasle bakoitzaren eboluzioa irudikatzen duen txostena sortzen baitu aplikazioak.

"Nerabe bati ezin diogu justifikatu biderketaren algoritmoa bere faseetan deskonposatuz, ezin du ulertu, eta Innovamat horretan tematzen da"

Terrassako Bisbat Egara ikastetxearen-tzat, abantailetakoa bat da ikasgaia gehiegi kontrolatzen ez duten irakasleei segurtasuna ematen diela. Menperatzen ez dituzten kontzeptu abstraktuagoen aurrean, adibidez, lehen irakasle batzuek azaletik jorratuko zuketena edukia eta orain sako-nago landu dezakete, metodologiak berak dituen azalpenak eta ariketak jarrita, diote.

... ETA KONTRA

Hain justu, batzuek positibotzat hartu duten azken ezaugarri hori kritikatu du hainbat hezitzailek: irakasleak ez du zertan ikasgaia menperatu, eta errazkerian erortzen da, ongi irakasten ez dakizkien azalpen matematikoen ardura Innovamaten gain utzita. Berdin ebaluazioarekin, baldin eta aplikazioak sorturiko grafiken esku uzten badu ebaluazioa irakasleak.

Gamifikazioa ere polemika-iturri da: batetik, ikasleek pantaila erabili behar-rak ohiko eztabaida piztu du, askok ez baitu begi onez ikusten pantailak ikastetxeetan hartzen ari diren protagonismoa –Innovamateko arduradunek muga proposatu behar izan dute aplikazio digitala-ren erabileran, Lehen Hezkuntzan astean matematikari eskainitako lau saioetatik bakarra izatea gomendatu dute, 40 minutukoa–. Bestetik, aplikazioak bideo-joko-en ezaugarriak bere egiteak menpekotasuna sortzera eta bideo-jokoetan txikitatik ohi-tzera eraman ditzake ikasleak, ohartarazi du hainbatek. Kritikoenen iritziz, zentzu



Innovamatekin, jolasa bailitzan pantailan hainbat ariketa egingo ditu ikasleak, bideo-jokoetatik elikaturiko formatuan. Marrazki bizidun bidezko azalpen-bideoak ere erabili ditzake irakasleak.

pedagogiko argirik ez duen gamifikazio hutsa da, gehiago diseinatu dibertitzeko, ikasteko baino. Are, pare bat irakasleri entzun diogu, ikasleak jarri dituztenean pantailan egiten zekitena paperean egiten, ez direla ariketa ebazteko gai izan. Agian lotuta dago Vallès Oriental eskualdean dagoen ikastetxe bateko zuzendariak dioenarekin: pantailan mailak gainditzeko eta beraz aurrera egiteko trukuak dakizkitez ikasleek.

Ikastetxe horretan, Innovamat zazpi urtez erabili ostean metodologia alboratzea erabaki zuten, klaustroaren eta familien oniritziarekin. Arrazoiak: "Haurrek ez zuten ikasten". Beren esperientziaren arabera, ikasitakoa ez zen finkatzen, ikasleek ez zituzten jakintzak barneratzen eta errendimendu akademikoa txikitzen hasi zen. "Ikasleek egun batean esan zidaten Innovamat ahazteko eta nire erara azaltzeko matematikak, hobeto ulertzen zituztela".

Hain justu, nahasgarria suertatzen zaio eredia guraso askori, matematika irakasteko urtetan erabili den moldearekiko oso ezberdina baita Innovamat, eta batzuk kexu dira, ez direlako gai seme-alabei etxean laguntzeko. Planteaturiko metodoak hain dira ezberdinak aurrekarietara, batzuetan gauzak konplikatu eta luzatu egiten direla ikasle, irakasle eta gurasoen artean.

"Gaitasun erdi-altuko ikasle profilarentzat pentsaturiko metodoa da eta aniztasunaren trataerarako ez da egokia; batzuk izugarri urrun daude planteatzen diren hainbat pentsamendu matematikotatik"

Errendimendura itzulita, Innovamat erabilia ikasleek maila eskasa lortzen dutela ikusi dute hura alboratzea erabaki duten ikastetxeek. Batzuek diote ez dagoela nahikoa ariketa, jakintza matematiko iraunkorrak ongi finkatzeko. Beste batzuek, denbora etsai duela, pedagogia oso geldoa eta barneratzen konplexua delako, alegia Innovamaten kalkulu teknikak ikasteko daudenak baino ikasturte gehiago behar direla. Valentziako irakasle bati

honakoa irakurri diogu: "Matematikak deskubritzea eta ulertzea prozesu zaila eta konplexua da, denbora daramana, eta ikasle askok, adinaren arabera, ez dute nahikoa heldutasun intelektual bidaia hori guztia egiteko. Ideia bezala ongi etor dakiguke irakasleoi, baina ezin da horrela irakatsi, nerabe bati ezin diogu justifikatu biderketaren algoritmoa bere faseetan deskonposatuz, ezin du ulertu, eta Innovamat horretan tematzen da".

Beste bi kritika: ez dugu ahaztu behar enpresa pribatua dela Innovamat -8 milioi euro inguru ditu fakturatuak-; materiala ordaindu egin behar da eta arrakala sozioekonomikoan sakondu egiten duela nabarmendu du hainbatek -baita eskola guztiak ez daudela digitalki egoki prestatuta ere, ordenagailu gutxi eta zaharrak dituzten zentroak gogoan-. Eta gehitu dute premia bereziak eta ikasteko zailtasunak dituzten ikasleentzat ez dagoela egokitu-ta, baina Euskal Herriko esperientzietara etorrita sakonduko dugu puntu hau.

EUSKAL HERRIAN, EZ ZURI, EZ BELTZ

Innovamatek eskaintzen duen onena: matematika esperientzialaren eta elkarriketaren bidez logika matematikoa ulertzen eta estrategia matematikoak deskubritzen eta garatzen joatea. Okerrena: ikas-

leen aniztasunari ez erantzutea, gaitasun jakin bat ez duten ikasleak bidean galtzea, metodoaren jakintza matematikoak egonkortzeko denbora nahikorik ez izatea. Hori kontatu digu Innovamat erabiltzen duen Euskal Herriko ikastetxe batean esperientzia duen eta bere izena eman nahi ez duen irakasleak.

Irakasle honek gustuko du metodoa matematikaren ulermenean oinarritzea. “Lehen kritikatzeko genuen ‘hau horrela egiten da’ irakastea, atzean dagoen matematika logika (guztiz) ulertu gabe, eta batzuek diote ez dela zertan logika hori jakin, baina egoera errealetarako bai da beharrezkoa zenbait kontzeptu matematiko ulertzea”. Matematikak esperimentazio eta manipulazioaren bidez ikastea ere begi onez ikusten du; “ikasleek eurek bilatzen dituzte emaitzak, eurek lortzen dituzte bideak, ikasitako kontzeptuak eta edukiak martxan jarrita”. Seaskan darabilten AraMat didaktikarekin antzekotasunak ikusten ditu: “Momentu batean elkarriketa sortzen da irakasle-ikasleen artean eta elkarrekin hainbat estrategia aurkitzeko espazioa eskaintzen da; lehen, estrategia bakarra ematen genien, eta hori baino ezin zen erabili”.

Estrategiak deskubritzen eta barneratzen joate horri lotuta, arestian aipatu dugun kritikarekin bat egiten du, ordea: “Innovamat ez da denentzat. Gaitasun erdi-altuko ikasle profilarentzat pentsaturiko metodoa da eta aniztasunaren tratararako ez da egokia, batzuk izugarri urrun daudelako planteatzen diren hainbat pentsamendu matematikotatik, ez dira horraino heltzen. Jakintzak azkar atxiki eta konexioak azkar egiten dituenarentzat oso estimulagarria da, ulermen mailan aurrera egiten duen heinean. Beste batzuk, aldiz, galdu egiten dira, eta ratioek ez dute laguntzen”.

Denborak ere ez die ikasle horiei laguntzen. “Batetik, Innovamat denborak

jaten du; euskal hezkuntza sisteman ez dago denborarik horrelako kronograma bat bere osotasunean aurrera eramateko, ezinezkoa da. Bestetik, ez dago nahikoa denbora ikasitako jakintzen erregistratze prozesurako (hau da, ariketak eginez jakintzak ongi egonkortzeko) eta hainbatek ez ditu oinarritzko matematika kontzeptuak barneratzen; horregatik iruditzen zaie batzuei maila baxua dutela Innovamatekin ikasitako haurrek.

Ikasle aniztasunari erantzuteko zailtasuna ikusi diote, baita ere, Ereñotzuko Txirrita Eskolan (Gipuzkoa), bertatik baieztatutik digutenez: “Gu eskola txikia gara, adin askotariko ikasleak ditugu gelan batera, eta produktua saldu zigutenean hain justu esan ziguten aniztasunera ongi egokitzen den metodoa dela, bakoitzaren mailaren arabera moldatzen dela, baina praktikan guri kontrakoa gertatu zaigu, metodo oso zurruna da, une bakoitzean tokatzen dena egin behar da, urratsez urrats, eta hori ere traba da proiektu lan egiteko, proiektu horrek agian gauza batzuk lantzea eskatzen duelako eta Innovamaten ez bada hori lantzea tokatzen, ez delako bateragarria”. Eztabaidan dira eskolan, matematika irakasteko moduen inguruan: “Ez dugu esaten metodo egokia ez denik, baina beharbada ez da guretzat”.

Kataluniatik jaso dugun kritiketako bat da nahasgarria dela –edo gutxienez, orain arteko matematika ereduakiko erabat ezberdina–, eta irakasleak behar bezala formatzea gako dela uste du solaskide dugun irakasleak: “Ezin da metodo berri bat inplementatu goizetik gauera, zer eta gainera urte luzez beste modu batera aritu bagara. Bestela, irakasle, ikasle eta guraso, denek galduta bukatzen dute. Irakaslea ez badago seguru irakatsi behar duen horrekin, nola sentituko dira seguru ikasleak? Nola ez da nahasgarria izango?”. Erronken kasuan, esaterako, marrazki bizi-dunetako pertsonaiek istorio bat kontatzen dute bi-

deo bidez, egoera errealetarak hurbiltzen dena, “baina batzuetan oso urrun dago euren testuingurutik edo konplexutasuna oso handia da, ez ikasleek ez irakasleek zer egin behar den ez jakiteraino. Frustrazio puntu bat sortzen du horrek”.

Hizkuntza ere *handicap* bat dela dio, Euskal Herrian bizi dugun diglosiak bereziki eragiten baitu Innovamaten: “Euskara menperatzen duenak errazago izango du halako metodo bat aurrera eramatea, pentsamendua hizkuntzaren bitartez garatzen delako. Metodoa euskara maila baxuko testuinguruetan inplementatu denean, garbi antzeman da”.

INNOVAMAT, OSAGARRI GISA


Irakasle honentzat, horrek guztiak ez du esan nahi metodo ona ez denik, baina murriztu edo egokitu egin behar litzateke, osagarri gisa txertatu. Hain justu, hala darabilte ikastetxe batzuek, eta nolabait, helburua litzateke denera heltzen ez diren ikasleei edukiak bermatzea, eta gainera koei espazio bat eskaintzea eduki horiek mugimenduan jartzeko eta erronkatan murgiltzeko.

Finean, esperientzia eta prozesu gehienak ez dira zuri ala beltz, ñabarduraz eta gorabeheraz betetako ibilbideak baizik. Ikasle, ikasgela eta ikastetxe bakoitzak ikusi behar du, kasuan kasu zerk duen funtzionatzen. Innovamat, Oaia, Matematix, AraMat... Batzuei eredu bat zaie baliagarri, beste batzuei beste bat, ez dago formula magikorik matematikak irakasteko eta ikasteko. Hori bai, hezkuntza sistemak eredu konpetentzialagora jauzi egin duen honetan, matematika irakastearen inguruko eztabaida (gehiago) nabaritzen du faltan batek baino gehiagok, curriculumetik harago oinarri eta irizpideak partekatu beharra. Bitartean, ikastetxeen autonomiak eta zentroaren hezkuntza proiektu propioak zedarritzen du zein metodologia jarraituko duen bakoitzak. ●

Erraldien ipuinak



12€



12€

Bi liburuak
batera erosita
22€

Lasarte-Oriako egoitza irekita dugu 8:00etatik 15:00etara

Hezkuntzaz gogoetak



14€



16€

Bi liburuak
batera erosita
28€

Bidalketa gastuak 5€ Bidalketa doan 40etik gorako erosketetan



Rakel Mateo

“Ez dut saiatsu ez izanaz damutu nahi”

Idea bat argi duenean, oztopoak oztopo aurrera doa Rakel Mateo triatleta (Mungia, Bizkaia, 1975). 2001ean lan istripu bat izan ostean, ezkerreko hanka txikituta geratu zitzaion. Horren ondorioz, kirol egokitua deskubritu zuen eta hiru Paralinpiar Jokotan parte hartu du.

 OLAIA L. GARAIALDE  BASQUE TEAM

Uztailaren 12an Magogen (Kanada) lehiatu ostean, hezur-edema bat egin zuen peronean, pista ez zegoelako behar bezala egokituta. Ia bi hilabetez lesionatuta egon ostean, Alhandrako Munduko Kopan parte hartu du irailean, Portugalen. Kontent itzuli da, ez zekielako nola erreakzionatuko zuen orkatilak.

Supermerkatuan lanean zegoelarik, 2001ean, ehun kilo erori zitzaizkion ezkerreko hankara Rakel Mateo triatletari. Lan istripuak paralisia eragin zion hankan. Horrek epaiketak, mediku probak eta beste protokolo asko aktibatu zituen: “Toki guztietara autoan edo poliki-poliki ibiltzen joaten nintzen. Nebaren bizikleta ikusi nuenean, neure buruari galdetu nion ea nola izanen litzatekeen berriz bizikletan ibiltzea. Banekien desgaitasunarekin konplexua izanen zela, baina nire modua aurkitu nuen. Prozesu horretatik ateratzeko ihesbide bat bihurtu zen”.

“Dударik gabe laguntza ekonomiko faltagatik lehiatu ezin diren kirolari onak egonen dira”

Bizikletan geroz eta kilometro gehiago aritzen zenez, istripuren bat eragitearen beldur zen. Horregatik, baimenak eta seguruak bilatzen kirol egokitua deskubritu zuen: “Istripuak onerako aldatu dit bizitza”.

“Hala moduz” egokitu zuen hasieran bizikleta. Hanka guztiz luzatuta eraman behar zuen, eta poliki-poliki eta frenatuta zihoala dio. Triatloien berri jakin zuenean, istripuaz geroztik igerian eta korrika ez zekien arren, probatzen joan

zen. 2014an lehiatu zen lehenengo aldiz, eta bi urtera Rio de Janeiroko Paralinpiar Jokoetan parte hartu zuen. “Sinestezina iruditzen zitzaidan. 35 urterekin hasi nintzen kirolaria izaten, eta hori baino lehen, 12tik 22 urtera arte anorexia izan nuen. Haztetik baino, autosuntsizetik nentorren. Baina, azkenean, neure buruari galdetu nion: ‘Eta saiatsu ez izanaz damutzen banaiz?’”. Helmugara iritsi, eta triatloia uztea zen Mateoren helburua, baina geroz eta erronka gehiagori aurre egiteko grinak gaina hartu dio. Ordutik, filosofia horrekin jarraitu du.

Hasieran, makuluekin egiten zuen korrika, baina egun protesia darama hanka ebaki ziotelako. Tokioko 2020ko Paralinpiar Jokoetara joan baino sei hilabete lehenago egin zioten ebakuntza. Hanka ebaki berritan, Espainiako Batzorde Paralinpikoak eta Espainiako Federazioak deitu zioten esanez goizegi zela lehiatzeko, baina hala ere, parte hartzea erabaki zuen: “Muinoia hesgai-



luz beteta ikusten nuen, baina argi nuen, ia bost urtez prestatzen egon ostean, horrek ez ninduela geldiaraziko. Nire xedea helmuga pasatzea zen". Parisko 2024ko Paralinpiar Jokoetan ere izan da, baina horren aurretik femurra apurtu zuen lehiatzen: "Ez dut marka olinpikorik lortu, baina inoiz ez dut damutu nahi izan saiatu ez izanaz".

Beste lesio batzuk ere izan ditu bidean. Esate baterako, uztailearen 12an Magogen lehiatzen hezur-edema bat egin zuen peronean. Ia bi hilabetez lesionatuta egon ondoren, irailean, Portugalen izan da Alhandrako Munduko Kopan lehiatzen. Soilik bi aste izan ditu korrika egin ahal izateko, baina bertan egon nahi zuen puntuak lortzeko: "Pozik nago ez nekielako nola erreakzionatuko zuen orkatillak". Kontatu duenez, beste batzuetan ez bezala, korrika egiteko pista ez zegoen egokituta, eta albo batera makurtuta zegoen. Gainera, ez zuten pista horren errekonozimendua egiteko aukerarik izan. Hori dela eta, Nazioarteko Batzorde Paralinpikoari kexa bat helarazi dio: "Esan zidaten jende gehiago kexatu zela. Gainera oso estua zen. Ni juxtu-juxtu pasatzen banintzen, pentsa pertsona itsu bat bide-erakusle batekin. Antolatzaileek ez dituztenez oztopo horiek, ez dituzte akatsak ikusten. Egia esan, ondo hartzen dituzte kritika konstruktiboak".

TRABA EKONOMIKOAK

Beste oztopo batzuez ere mintzatu da Mateo; tartean, kirol munduaz bizitzeko

dauden zailtasun ekonomikoez. Iruditzen zaio "oso zaila" dela kirolaz bizitzea, eta "are gehiago" pertsona desgaitua izanik, gastu handiagoak daudelako. Triatloian bete-betean aritu nahiko luke; alabaina, Lantegi Batuak Fundazioan lan egiten du. Azpimarratu du oso eskertuta dagoela, lan-utzialdia eskatu zuenean lanaldia murritzeko aukera eskaini ziotelako eta txapelketekin antolatzen laguntzen diotelako: "Argi dut honaino iristea lortu badut ondoan dudan guztien laguntza-rengatik dela".

Horregatik, nahiz eta dirulaguntzak egon, babesle pribatuak lotu behar direla dio: "Agian beka handi bat lortzen baduzu bizi zaitezke kirolaz, baina azkenean gastu ekonomikoa handiagoa da, osagarri gehiago behar ditugulako. Naturalizatzearen, txantxetan, haurrei esaten diet Barbie eta bere osagarriak bezala naizela". Gastu horien artean daude, besteak beste, protesiak, tandemak eta bide-erakusleak: "Nire kasuan protesia babesletzari esker daukat. Dudarik gabe, laguntza ekonomiko faltagatik lehiatu ezin diren kirolari onak egonen dira". ●

GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Protesia eta muinoia. Batzuek betaurrekoak dituzte, beste batzuek bibotea edota bizarra, batzuk ilehoriak dira eta nik protesia daukat. Gustatuko litzaidake naturalizatzea denok ezaugarri propioak ditugula".



IMANOL EPELDEREN ZUTABEA



Iritzirako fitxaketa berria dugu Imanol Epelde Pagola. ARGIA zaleek '27 zapata' blogean idazten zuenetik ezagun izango dute. Autokritika umoretsua egitea oso gustuko du.

Berriketa gutxi zutabegile berriarekin


ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Bi nahikoa ez eta hogeita zazpi zapatarekin iritsi zen ARGIAra, aiztoa astinduz alde guztietara. Umorerik galdu gabe, sartu zien *kutxillo* txikia gurasoei, turismoari, gizon eta gizonkeriei, indar okupatzaileei, euskaldunei, euskaraz ez dakitenei, teknologiararen eta egungo droga berrien yonkiei... Iritzirako fitxaketa berria dugu Imanol Epelde Pagola eta esan didaten bezain pronto joan naiz *27 zapata* bere blogeko hemerrotekara (<https://blogak.argia.eus/imanol-epelde/>), berrikustera duela lauzpabost urte ikusi eta gozatu nituen bideoak.

Etxe honetan dagoeneko aurkezpen handiegirik behar ez duena da eta lanak gehiago errazteko, gainera, denboraldi-ko bere lehen sarreran kokatu gaitu ira-

kurleak. Honela dio: "Gizonezkoak ziren gehienak sanferminetako entzierroetan; gizonezkoak ia denak Frantziako Tourrean; gizonak hartu dute udako musika jaialdietako oholtza eta *backstage*-a; gizonezkoak dira nagusi bertso-plazetan; gizonezkoak dira Donald Trump, Vladimir Putin eta Benjamin Netanyahu ere. Eta hara, hemendik aurrera, gizon bat arituko da ARGIAko plaza honetan ere idazten: gizon zuri heterosexual bat, 50 urteren bueltakoa, sistemak jaten ematen dion horietakoa. (...). Eta bai, plaza honetan arituko naiz ni ere, progre, autokritiko. Zeri buruz baino nondik idazten asmatu nahian: Gizon zuri, heterosexual, patrikabete euskaldun bat munduari kopa berriak jartzen, euskaratik".

Sarean eduki guztiak irekita zuri esker



Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“”

Orain arte ezin izan dudalako eta ARGIAri esker doan ikasitakoa modu xumean eskertzeko modua ikusten dudalako.

Beratik Juan Luisek

“”

Euskaraz idatzitako kalitatezko informazioa irakurri nahi dudalako.


Bilbotik Kepak

“”

Gai sakonak lantzen dituzuelako. Ortzaizetik Elorrik

Berriketa gutxi. Hala du izena zutabeak eta izan liteke aurretik izan dituen iritzigileen mailagatik, Epelderen aurretik igaro baitira Aritz Galarraga, jantzi gintuena literaturaz; Uxue Apaolaza, xehatu zituen hamaika gai sozial; eta June Fernandez, murgildu gintuena feminismoan. Baina berriketa gutxi Zarauzko piratarekin, labana ahoan duela heldu baita, Euskal Jaiak pasa berrian.

Azken urteetan irakasle lanetan ari-tua, aurrerantzean sorkuntzari tarte handiagoa emateko asmotan da. Irakasle lanetan zebilela sorkuntzari eskainitako denbora murriztean egindakoa gustatu bazitzaizun, irakurle, pentsa zer egitera iritsi daitekeen aurren! Euskal oasia dardarka dago. ●



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Santu izateko gida praktikoa

Hungaria, 1038. Eztebe I.a erregea, erresumaren fundatzailea hil zen. Handik mende erdi eskasera, 1083an abiatu zen haren kanonizazio prozesua, eta, hala, historiako familia santuenaren historia ere abiatu zen; guztira, Hungariako errege-familiako hamar kide izendatu zituzten santu edo beato, eta horietatik soilik bi ziren kleroko kideak. Modu horretan, luzaroan indarrean egon zen santu izateko irizpide bat aldatu zuten: kleroko kidea izatea. Handik aurrera, botere politiko eta ekonomikoak Jainkoari eskainitako bizi osoa baliozkotzen zuen, nonbait. Lehenago, Goi Erdi Aroan, salbuespen batzuk izan ziren, baina gehienetan martiri moduan hil ziren pertsona laiko horiek.

Izan ere, sufrimendu fisikoa elementu garrantzitsua izan da santutze bidean. Santa Luziari begiak atera zizkioten, Santa Ageda Cataniakoari bularrak moztu zizkioten, San Blasi azala kendu zioten xaflegoriekin, San Lorenzo torturatzeko ere burdina goriak erabili zituzten... Torturak kanonizaziorako puntuak ematen ditu, baina ez da derrigorrezko baldintza. Santutegi katolikoko bazkide guztiek ez zuten muturreko sufrimendu fisikorik jasan behar izan klub horretan sartzeko.

Derrigorrezko baldintzetako bat mirariak egitea da, edo, bestela esanda, mirariak asmatzeko irudimena izatea. San Martin Porreskoak, esaterako, bilokaziorako gaitasuna zuen, une berean bi tokietan,



Liman eta Afrikan, agertu baitzen –zenbait iturriren arabera, Japonian ere agertu zen–; eta, behin, bere monasterioan sagu izurritea zegoela eta, karraskariekin zuzenean negoziatu zuen, eta beste toki batera joateko konbentzitu zituen. San Vicente Ferrer Castellóko Morella herrira joan zenean, emakume batek bere haur jaioberria zatikatu eta egosi omen zuen bisitariak jan zezan; santuak zatiak hartu eta puzzlea bailitzan muntatu eta berpiztu zuen haur txikia. Santa Kolonba Ionakoak Ness lakuko munstroa bera (kondaira guztiz paganoa) mendean hartu omen zuen. Eta Santa Brigida Kildarekoak, Irlandako patroietako batek, askorengan inbidia piztuko duen gaitasun bat zeukan: ura garrardo bihurtzen zuen.

Baina mirari ikusgarri horiek apalduz joan dira denboraren poderioz. Berriki kanonizatutako Carlo Acutis sarean jainkoaren hitza zabaltzeagatik nabarmendu arren, eliza katolikokoak internet bidezko mirariak oraindik ez ditu homologatu, eta italiar nerabeari irudimen gutxiko bi mirari egokitu dizkiote: gaixo bat sendatu omen zen haren elastikoaren oihala ukituta, eta beste pertsona bat ere osatu omen zen Acutisen hilobian otoitz egin ondoren.

Mirarien kalitatearekin batera kanttateak ere nabarmen egin du behera. Garaiazen arabera, hil ondorengo mirarien gutxieneko kopurua aldatuz joan da. Aro exijenteenetan santuko ehunka mirari asmatu behar ziren; Vatikanoko II. Kontzilioaz geroztik (1962-1965), bi besterik ez dira behar.

Eskakizunak apaltzeak, hautagaien kopurua handitzea dakar. Egun, 2.600 santu inguru ditu eliza katolikokoak (10.000 inguru beatoak gehituta). 1756an Alban Butler apaizak 1.486 santu zenbatu zituen; horrek esan nahi du bi mende eta erdi pasatxotan kopurua ia bikoiztu egin dela. Joan Paulo II.ak hautsi zituen marka guztiak, 25 urteko agintaldian 1.300 beatifikazio eta kanonizazio egin zituen, santuen gurtzaren negozioa zabalduz.

Horrenbestez, eliza katolikokoak komeni bezala moldatu ditu santu izateko irizpideak. Baina funtsezko baldintza bati finko eutsi dio, oraingoz behintzat: hautagaiak hilda egon behar du. ●



PNASGIZA

Momifikazioa berridazten

Luzaroan momifikazioa antzinako Egiptorin lotu izan da eta zibilizazio hura jotzen zen momien jatorritzat. Azken urteetako aurkikuntza eta ikerketek aldiz, momifikazioaren historia astindu dute. 2022an duela 8.000 urteko momia bat aurkitu zuten Portugalen, eta, berriki, 12.000 urteko giza arrasto momifikatuak topatu dituzte Txinan.

Berez, giza arrasto horiek aspaldi topatu zituzten Asiako hego-ekialdean. Baina, *Proceedings of the National Academy of Sciences* aldizkarian argitaratutako ikerlanaren arabera, orain arte ez dira momiatzat jo, erabilitako momifikazio teknika, kezkatze mantsoa, ez zutelako aurrez detektatu eta aztertu. ●

EUROPAKO NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUAREN ITZAL BIZIGABEA



MIRENE BEGIRISTAIN ZUBILLAGA
EKO-FEMINISMOA EDO HERIOTZA



Uztailaren erdialdean aurkeztu zuten 2027tik aurrera Europako Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) izango dena, eta proposamena izugarria da: NPbaren egitura desagitea eta azken urteotan lortutako aurrerapen urriak suntsitzea. Gaur egun, NPbaren aurrekontua Europar Batasuneko aurrekontuaren %30 ingurukoa da, eta laguntzen kopuru nagusia lur azalaren arabera banatzen da (are eta azalera gehiago, diru-laguntza gehiago); bai, logika metakorra eta akaparatzailea da. Aspaldian jakina da Europan laguntza zuzenen ia %80a “onuradunen” %20aren poltsikoetara doala; eta ez, baserritarrak ez daude %20 horien artean. 2024an Espainiako Estatuan El Pozo, Mercadona edo Central Lechera Asturianaren korporazioak izan ziren NPbaren onuradun handiak: hiruen artean ia 20 milioi euro jaso zituzten.

2027tik aurrera estatu bakoitzak bere nekazaritza plan estrategikoa garatuko luke. “Sinplifikazioa eta efizientzia” argudio neoliberalerkin justifikatzen da proposamena, eta aurrekontuaren %20ko murrizketa, fiskalitatean progresibitate eza eta lan eta ingurumen baldintzak bermatzeko diru-laguntzak jasotzerakoan zeuden “gizarte eta ingurumen baldintzapen” irizpideak ezabatzea dakartza.

Jakina, hau guztia ez dator edozein momentutan. Gerra eta militarizazio tes-

tu ingurura batu behar ditugu iaz zenbait hiritan ikusi genituen traktoreen gainean –eta itzalean– zeuden interesak. Diskurtso neoliberalak eta eskuin muturrak paper nagusia izan zuten mobilizazioetan –nahiz eta agian ez hainbeste EA Eren eta Ipar Euskal Herriaren kasuan–, nekazaririk gabeko landa eremua eta kultura heteropatriarkala inposatu nahi duten diskurtso faxisten estrategiarekin bat eginda.

Abuztuaren 18an, berriz, barruak astindu zizkigun beste notizia hau ere irakurri genuen: *Eguzki plakak jartzen diren lurralde kontuan hartuko dira Europako Nekazaritza Politika Bateratuaren laguntzak jasotzerakoan*. Espainiako Estatuak indarrean dagoen NPB aldatzeko egin duen eskaera bati erantzuten dio erabakiak; eskaera hori Europak onartu du eta autonomia erkidegoen adostasunarekin egin da.

“Sistema agrovoltaikoak” deitzen dieten –agro aurrikzia kareztatutako erabilita– eta nekazaritza jarduerak “dibertsifikatzeko” bide gisa aurkeztu digute. Baina nekazaritzara bideratu ordez, energia ekoiztera –ondoren saltzeko– dedikatutako lurraldea bihurtzen dute, diru publikoa energia korporazio pribatuei irabaziak handitzera desbideratuz. Diskurtso sinestezinean, agrovoltaikoak nekazariarentzako diru-iturri berriak izango direla diote, teknologiaren garapenak eta digitalizazioak lagunduko dietela, eguzki plakak ekoizpenaren eta abereen babesleku bihurtuko direla

–itzalak, ekaitzak...–, ur kontsumoa murrizteko aukera emango dutela. Zein “nekazariz” ari dira? Nork ditu azpiegitura horiek instalatzeko eta mantentzeko interesa eta gaitasuna? Nork uste du eguzki plakak eta baso baten itzalak konparagarriak direla? Ez diezazkigutela konponbide faltsuak saldu, enpresa energetikoen kontuak konpontzeko baino balio ez dutenak, sortzen dituzten galera ekologiko, sozial eta kulturalak ezkutatuta.

Ondo dakigu NPbak aspalditik duela iparra galduta. Sektorearen prekarietatea errealitate latza izanik, erantzun digitalak eta berde-kakiak NPbren merkatu-ardatza indartzera datoz, pastelaren banaketatik kanpo utzita nekazari eta ekoizpen txiki agroekologikoak.

Trantsizioaren noranzkoa eztabaidatu eta zalantzan jarri behar da. Hegoalde globalak hainbat hamarkadatan bortizki jasan duen lurraren desjabetze kolonialistaren logika erreproduzituta, euskal trantsizio energetikorako plan sektorialetan landa-eremuko sakrifizioarako diren lurraldeak batu dira. Orain, plan horiekin bat egiten du NPbk.

NPbk desberdintasunak ezabatuko dituen tresna izan beharko luke, eta Elikadura Politika bihurtu, nekazarien zein jendartearen elikadura eskubideak bermatu daitezkeen. Gure jarduna trantsizio agroekofeministaz elikatzen da, elikadura burujabetza eraikitzen duen apustu politikoa: nekazariarekin, agroekologikoa eta feminista den elikadura sistema baten baitan. Nola? Dagoeneko nekazaritza eta energia politika iraunkorren bidegurutzean mar txan daude hainbat prozesu konkretuekin: elikagaiak ekoizteko eskala txikiagoa eta energia gutxiago kontsumitzen duten sistemak, lurralde babesteko ekimenak, dieten berrikuspena, eskualdeetako elikadura estrategia publiko-komunitarioak, erreleborako alternatiba duinak bermatzeko proposamenak, aliantza internazionalistekin, besteak beste. NPbren itzal bizigabearen aurrean, alternatiba izatetik elikadura politika agroekologikoa hedatzera igarotzeko garaia da, botere harreman patriarkalak desaginda, bizitza erdigunean jarrita. ●

A ZE FAUNA!

ASKO BAI,
BAINA EZ MILAIÑAKI MEZQUITA ARANBURU
ARANZADIKO KIDEA

Silurikoan sortu omen ziren, kontuak atera! Duela 400 milioi urte edo gehiago. Beraz, planetako lurretan azaldu ziren lehenetako animaliez ari gara, ez da txantxetarako kontua. Eta oraindik txantxa gutxiago, garai hartako espezie batzuek luzeran bi metro ere bazituztela jakinda. Gaur egun, ordea, planetako miriapodo espezierik handiena nekez iristen da 40 zentimetrora.

Miriapodoak hanka askoko animaliak dira; antzinako grezieran *myria* hitzak zenbatezina esan nahi du, eta *podos*-ek, berriz, oina/hanka. Miriapodoak lau taldetan daude sailkatuta, horien artean Chilopoda taldekoak (ehunzangoak, alegia) eta Diplopoda taldekoak (milazangoak). Lur planetan talde honetako 12.000 miriapodo espezie inguru ezagutzen ditugu, nahiz eta, adituen ustez, planetan zortzi aldiz gehiago diren. Espeziearen arabera gorputzaren segmentu kopurua aldatu egiten da, eta, ondorioz, hanka kopurua ere bai: batzuek dozena pare bat hanka

dute, beste batzuek, berriz, 400 hanka izan ditzakete.

Ernalketa ez da beti zuzena izaten. Arrek gonopodo izeneko apendiz batzuk dituzte –moldatutako hanka batzuetan dute jatorria organo horiek–, esperma poltsak emearen gorputzean bertan uzteko. Gorputzean ez ezik, espezie batzuek emearengandik gertu uzten dituzte, gero berak har ditzan. Badira baita ere espezie batzuk partenogenesis bitartez ugaltzen direnak, hau da, arrik gabe, emea soilik ernaltzen baita, intsektu batzuen artean gertatzen den modura (erleak, adibidez).

Milazangoa esaten dugu, baina bada hanka gehiagoko espezierik! Hori bai, Australian, ez hemen. Diplopodoek, gaurko protagonistaren taldekideek, gorputzeko ia segmentu guztietan bi hanka pare dituzte, ehun zangoek ez bezala, horiek segmentu bakoitzean soilik hanka pare bat baitute. Miriapodoen hankak sinkronizatuta mugitzen dira ibiltzeko garaian, olatuen uhinak bailiran. Espezie askok

biribiltzeko gaitasuna dute arriskuen aurrean, burua makurtuta, gorputzeko segmentuak bildu eta hankak barruan gordeta (kukurutxaren antzera).

Milazangoak, oso gertakizun arraroa bada ere, izurrite bilakatu daitezke eta zenbait landaretan kalteak eragin ditzakete. Triku talde bat kontratatu behar, horiek milazangoak atsegin handiz jaten baitituzte. Milazangoen defentsa-sistema gorputzean urin toxikoak ekoiztea da, urin hori gorputzean dituzten zulotxo bidez arerioari botatzeko. Esan beharrik ez dago gizakiontzat proportzio horretako “pozoiak” ez direla inolaz ere arriskutsuak.

Tachypodoiulus niger-ek 100 bat pare hanka du, hondakinak jaten ditu eta kareharrizko lurretan bizi ohi da. Batez ere gautarra da, baina ilunabarrean ere aktiboa izan daiteke. Orbelean, enbor azalaren azpian edo goroldioan ezkutatu, elikatu eta bizi da. Gainontzeko miriapodo espezie gehienetan bezala, honetan ale arrak eta ale emeak daude. ●

MILAZANGOA
Tachypodoiulus niger

TALDEA: Myriapoda / Diplopoda.

NEURRIA: 50 mm.

NON BIZI DA? Lurralde karstikoetan, zuhaitzetan ere bai.

ZER JATEN DU? Hondakinak, algak, fruituak..

BABES MAILA: Ez dago babestua.



IÑAKI MEZQUITA

GARDE HERRIAN INTXAURRONDOEK IZENA DUTE



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Garuna dirudi, bai, intxaur alearen mamiak. Garun bikoitza. Alearen edo garauaren barrukoari “intxaur-mami”, “intxaur-ister” eta “intxaurki” esaten zaio. Beno, hasteko argitu behar dut *Juglans regia* arbolari eta bere aleari “intxaurra” esango diogula gaur, bestela ez gara kabituko, baina izan zitekeen: Erronkaribarrean, intzagur, itzagur, itzigur, entzagur, entzuur, etsagur, etzagur eta etzaur eta Euskal Herriko beste txokoetan unsaur, untxaur, intzaur, inzaur, insaur, entzuur, etsabur, etxagur, etxaur, etxabur, exabur, eltzaur, intxoar, intxor, intxur, intsaar, intzagor, intzaor, itxaur, itzaur eta abar.

Garde, Erronkaribarreko Garde herria, ez dut aipatu zaharra txoko honetan. Gure intxaurrendorik handiena han bizi da: 19 metro garai, enborrak lurrazalean 5,7 metroko ipurdi-buelta eta 4,14ko gerribuelta eta 30 x 24 metro koadroko itzala du. Ez dago arbolazulo izan beharrik, begi-bistakoa da zergatik izendatu zuten 1991n Nafarroako Monumentu Natural. Ez da bakarrik bizi, herrigunean beste 50 intxaurrendo bizilagun ditu. Intxaurrendo horiek gehienak herrian jaisten den Gardalar errearen aldamenen eta horko zaltuetan bizi dira. 51 intxaurrendo eta herritarrak 131, gardarrak denak.

Intxaurrendoak herri-lurretan bizi dira, eta ondoak edo arbolak herriarenak dira, baina intxaurrendoak ematen dituen



Jakoba Errekondo Garden 4,14 metroko gerri-buelta duen intxaurrendoren abaroen hitzaldia ematen.

aleak, fruituak etxe batenak dira. Intxaurrendo askok etxe baten izena du edo etxe horretako bizilagun batena; izan ere, etxe horrek du intxaurrendo horren fruituen gozamina; eta noski, norberarena nor den eta besteenak ere nortzuk diren beti gogoan. Izena duten intxaurrendoak: Pedro Manuel, Pasintxa, Mainate, Galetx, Juan Miguel, Txikin, Cesarea, Surio, Mantxo, Ezker, La Marca, Katalo, Esparz, Galan, Herrero, Viratx, Alguazil, Domeño, Juan Sanz, Ñarro, Santiago Aznarez. Auzoak egunero agurtzeko, izenez agurtzeko. Garuna behar du.

Duela hilabete egin dugu intxaurrendi, intxausti, intxaurreaga, intxaurreta berezi horren inguruko juntaizo bat. “Pedro Manuel intxaurrendoa” izena duen monumentuaren itzaletan herriaren erdia baino gehiago bildu, kanpotar batzuk ere bai, eta intxaurren inguruan aritu ginen. Bertako jende helduak izugarritzko jakingarriak azaldu eta zalantzen argibideak plazaratu zituzten. Denek elkar hartuta izugarritzko datu-basea dute. Garuna behar du.

Nik herriaren etorkizunaren ardatz gisa ikusten dut intxaurendia. Komunitate indar-

tsu baten autoestimaren erregai eta buerrespetuaren zutabe. Lehena Gardako bizilagun guztien zaintza eta bizi kalitatea hobetzea da, bihankako zein sustraia. Intxaurrendoak oinarri, herriko ekonomia susper daiteke: bertako intxaurrendu eta babestu, intxaurrendu ekoizti eta merkaturatu, intxaurrendoak ernatu eta txertatu eta saldu, intxaurre-zura landu, intxaurre hostoaren axotea koloregai edo tindugai gisa erabilitako oihalak eta arropa sortu, intxaurrendoen istorioa ezagutarazteko txoko bat sortu eta herritarrek lagun hartutako bisitak antolatu, intxaurrendu garrantzia duen beste herri batzuekin senidetu –Melida eta Irantzu, Nafarroan bertan; Dordoina eskualde okzitaniarra...– eta abar. Badago zer egin, gogoia eta garuna behar da.

Auzoko Zaraitzuko bailarakoek esaten dutena gezurtatzeko: “Itzaur guti eta arroitu anitz”. Eta 1959an Kandido Izagirrek argitaratutako *Erronkariko euskal ondakin batzuk* testuetan jaso zuen esarari kasu eginda: “Itzigur xatra”, gardarrak, goazen gozatzer! ●

ARALAREKO

ARALARREN HAZITAKO MOXAL HARAGIA

Amezketako Loidi baserrian sortutako proiektua da Aralareko, Uxue Artola Ansak eta Iosu Goñi Muruak bultzatua. “Familiako proiektua da gurea, moxal haragia lehenagotik ere ekoizten genuen, baina kanpora saltzen genuen, eta gauzak beste modu batean egiteko gogoz, bide berriak pentsatzen hasi ginen”, azaldu dio ARGIAri Artolak. Aldaketek sortu ohi duten beldurrari aurre egin, 2022an bizpahiru moxal jarri, eta proba moduan haragia zuzenean saltzeari ekin zioten. “Sorpresa handia hartu genuen, jendearen erantzuna ikaragarria izan baitzen, eta hasiera batean proba izan behar zuenarekin bai ala bai segitzeko beharra sentitu genuen”, dio.

KONTSUMO OHITURA BERRESKURATZEN

Bai Artola eta bai Goñi baserrian hazitakoak dira, eta beti izan dute lehen sektorearekin harreman estua, baina Aralareko proiektua abiatu arte ez zuten ofizio izan baserria. “Behorrek beti egon dira baserrian, lehen Tolosako harategietara eramaten genituen moxalak”, gogoratu du. Salmenta zuzenarekin hasi zirenetik, ordea, afiziotik ofiziorako saltoa eman zuen eta honetan ari da buru belarri Artola. “Sasiardiak eta Euskal Herriko mendiko zaldi arraza ditugu. Bertako arrazak nahi genituen, hona ongi egokituak daudelako. Ardiak, dena den, lurren kudeaketarako ditugu bereziki, eta moxal haragia ekoizten dugu batik bat”.

Gipuzkoa aldean moxal haragia kontsumitzeko ohitura nahiko galduta dagoela

dio abeltzainak, eta berriz ere berreskuratzeko bultzadan ari dira Loidi baserriko kideak. “Garai batean Tolosaldean baziren moxal haragia saltzen zuten dendak, baina itxi egin ziren eta ohitura galdu da”. Hala ere, proiektuaren sare sozialak zabaldu eta haragi loteak eskaintzen hasi bezain pronto jende askok idatzi zien, eta espero zutena baino interes handiagoa piztu zuen ekimenak. Zuzeneko salmentaren bidez, ekoizpenaren zati handiena lotetan saltzen dute, baina inguruko zenbait jatetxerekin ere –bertakoari eta ekologikoari garrantzia ematen dioten horiekin– elkarlana badute.

BEHORRAK, URTE OSOAN KANPOAN


Eredu ekologikoan ari dira Loidiko kideak hasieratik, eta ziurtapen prozesuan

daude momentu honetan. Urte osoan kanpoan izaten dituzte abereak: “Uda-berritik udazkenera mendian izaten dira, Aralarren; urri-azarotik otsailera Amezetako herri mendia erabiltzen dugu, eta otsaila-martxotik udaberrira, berriz, baserriko zelaietan egoten dira”. Abeltzaintza estentsiboa egiten dute, urtaroei eta zikloei erabat lotua.

Aziendak Oñatiko hiltegira eramaten dituzte, eta Amorebietan egiten dute zatikatzea. “Tolosakoa itxita dago, eta Amorebietako salak aukera gehiago ematen dizkigu zatikatzeke, hanburgesak eta horrelakoak egiteko. Baina, egia esan, mundiala litzateke Tolosaldean hiltegia berriz martxan jartzea, edo beste zerbait sortzea. Izan ere, Tolosaldean ekoizle asko ari gara salmenta zuzenarekin, eta kilometro asko egin behar izaten dugu”. ●



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN



**Zereal, lekale eta
bazka ekologikoak.**
Salmenta zuzena

info@hazialdeko.eus
621 229 415





Gu haurrak ginenean zinea herriaren aisialdia zen; hori orain telesailekin gertatzen da

Koldo Almandoz, zine zuzendaria

Azken urteetako euskal thrillerren maisutzat dute askok Koldo Almandoz (Donostia, 1973). 2020an kaleratu zuen Nerea Garcia (Nagore Aranburu) inspektorearen lehen telesaila, *Hondar Ahoak*, eta Ondarroan pasatakoek publikoa poltsikoratu zuten bizkor. Lehen zatitik bost urtera, bueltan da Garcia inspektorea, oraingoan bere etxean, Bilbon. Herri txikitik hiri handira, istorioak ere salto bera egingo du: ilunago, sakonago dator Almandoz bere telesail berrian, *Zeru Ahoak*-en. ETBn eta Primeran-en jada ikusgai.

MARIA ORTEGA ZUBIATE DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

2020an estreinatu zenuen *Hondar Ahoak* telesaila. Bost urte eta gero, zelan hartu duzu utzitako bidea?

Guztiz zintzo izate aldera, *Hondar Ahoak* bukatutakoan, nolabaiteko argumentu bat garatu nuen hari jarraipena emateko. Uste nuen *Hondar Ahoak*-en arrakastari tiraka errazagoa izango zitzaigula bigarren zati hau ateratzea, baina ez zen horrela izan, bost urte pasatu dira. Orduan, erabakia hasieratik garbi nuen: bost urte horiek natural hartuko genituen, pertsonaiaren bizitzan ere igaroko ziren bost urte horiek, eta horrek ematen zigun aukera testuinguru ezberdin batean jartzeko telesaila, denbora elipsi bat egiteko. Interesgarria iruditzen zitzaidan aldaketak gauzatzerako orduan denbora-distantzia horrek abantailak ematen zizkigulako.

Lehen zatia Ondarroan zen; bigarren Bilboko itsasadarrean. Biak ala biak, trakets esanda, leku “zatarrak”.

Zergatik leku horiek?

Nik beti ihes egiten diot Euskal Herri bukoliko pastoral honi: Ondarroa leku ederra iruditzen zait, edertasun fisiko-estetiko batetik, Pasaia iruditzen zaidan moduan, adibidez. Eta, bestetik, badira herri batzuk harri-kartoizkoak iruditzen zaizkidanak, ia-ia sinesgaitzak egiten zaizkidanak. Bilbo, aldiz, Euskal Herrian dugun hiri bakarra da, hiria jende eta kultura ezberdinak modu masiboan biltzen dituen adieran ulertuta; eta guk aukeratu dugu Bilboko periferia ingurua, bilbotarrak bizi diren Bilbo.

Hondar Ahoak-en kanpotar bat beste leku batera joaten da, bere testuinguru eta paisaiatik kanpo. Oraingoan guztiz kontrakoa egin nahi nuen: nahi nuen trama

joan zedin pertsona hori bizi den inguru eta errutinara. Erraza izan zen, modu natural batean sortu zen: Nerea Garcia Bilbotik Ondarroara joan zen lehen telesailean, baina Bilbon bizi da, nahiz eta bera bilbotarra ez izan. Eta paisaia eta denbora aldaketa honek ematen zidan beste aukera bat zen Nerea Garcia lehen telesailean inspektorea zen moduan, bigarren honetan Ertzaintzatik kanpo dagoela, eta horrek lekuz aldatzen du: lehen boterearen alde zegoen, indarkeriaren monopolioa erabiltzen duten erakundeek lekuan; eta orain pistolarik gabe egin beharko du ikerketa. Eta horrek gauza interesgarriak eskaintzen zituen.

Eta bata herri txikia da, denek dena dakitena; bestea, aldiz, hiri handia, bakardadearen hiria.

Bai, hain zuzen ere hori ahalbideratzen zigun Bilbok. Hiri handiek daukaten kontraesan bat da bakardadean askotan bertan sentitzen zarela, justu jendez inguratuta zaudenean. Baina era berean, hiriak eskaintzen dizkio jendeari ihesbideak. *Hondar Ahoak*-en ikusten zen Karmenek hirirantz egiten zuela, bizitza intimoa edo sekretua errazago garatzen delako hiri batean.

Karmen aipatu duzu. Lehen zatian zantzuak bazeuden ere, bigarren honetan esplizituki erakutsi duzu bi emakumeren arteko harreman lesbikoa. Bazenuen keinu hori egiteko asmoa?



Egia esan, ez zen zerbaít boluntarioa izan. Idazterako orduan, pentsatzen nuen Nereak behar zuela norbaít bere ziurtasun guztiak hautsiko zituena. Telesaila hasten denean ez da sexualitateaz hitz egiten, ez dakizu berari zer gustatzen zaion. Baina bat-batean agertzen da Karmen, ez da generodun Karmen, baizik eta Karmen, eta bere ziurtasun guztiak ahultasun bihurtzen ditu, urduri jartzen da.

Bi emakumeren arteko harremana baino, gustatzen zitzaidan bi emakume helduren arteko harremana izatea: adin bat daukaten bi izatea, begi-zuloak, zimurrak dituztenak, gauza ezberdinetatik pasatutakoak izatea. Horrek bestelako berniz bat ematen zion istorioari. Badakit horrelako gaiak lantzen dituzunean badirudiela zilegitasunaren kontua dagoela hor. Iruditzen zait sortzaileok kausa horien guztien erabilpen bat egiten dugula, nolabaiteko zigilu bat jarri behar diogu eta "LGTBI pelikula" edo dena delakoa deitzen diogula.

Nik pentsatu nahiko nuke gai horiek jorratzen ditugula, baina ez daudela pankartaren lehen lerroan. Istorioaren parte dira, baina ez dira istorioa ainguratzen dutenak.

Trama berri honetan pauso bat gehiago eman duzu, sakonago doa eta beste dimentsio batzuetara zabaltzen da: herri bateko trapu zikinak ateratzetik, nazio mailako estoldetara joan zara. Nahi zenuen zerbaít handiagoa egin?

Bai, egia esan bai. Denbora pasa den honetan pertsonaiak hazi behar zuela argi nuen, eta beti dago arrazoi poetiko bat, baina nik prosaikoaren alde egingo dut: *Hondar Ahoak* oso denbora gutxian egin genuen. Gidoia idazten ari ginen bitartean jada filmaketa prestatzen ari ginen, orduan, oinarritzekoagoa da, ez da hain konplexua. Nik uste *Zeru Ahoak*-en gidoia hobeto dagoela josita, horretarako denbora gehiago ere izan dugulako. Eta

niri genero beltzean interesatzen zaidana da ahalbideratzen duela gizarteaz hitz egitea. Aurrekoak ez zeukan horretatik, baina honetan nahi nuen hori jorratu: estoldetatik etortzen diren gaiak jorratzeko gogo geneukan eta horretarako aukera ikusi genuen. Apustu bat da.

“ ”

Ulertzen ditut euskalkien alde sutuki borroka egiten dutenak, baina nik ez dut pedagogia egiten

Gizartea erretratatzeko orduan, hizkuntza ezinbesteko pieza da. *Hondar Ahoak*-en, Ondarroan, euskaraz berbetan jarri zenituen; orain Bilboko gazteek euskara eta gaztelera nahasten dituzte. Garrantzitsua da naturaltasuna?

Nire ustez naturaltasuna beti da eskertzekoa eta ona. Ulertzen dut ze herritan bizi garen, euskararekin daukagun egoera hau: ulertzen ditut euskalkien alde sutuki borroka egiten dutenak, ulertzen ditut esaten dutenak euskara batua behar dugula guztiok batuko gaituen hizkuntza akademiko bat izateko. Baina nik ez dut pedagogia egiten, niri ez dagokit hori. Kasu honetan, Bilboko hiru aktore gazteen artean, batek duen euskara Bilboko ikastola batean ikasi duena da, ia inoiz erabiltzen ez duena, eta profil hori existitzen da. Eta beste bi profilak dira beste leku batzuetakoak, euskara gehiago erabiltzen dutenak eta gaitasuna izan dezaketenak beren euskalkian eta baituan hitz egiteko. Hori gizartean badago.

Nik ulertzen ditut eztabaida horiek guztiak, baina nire asmoa beti da ikustea gustatuko litzaidakeen telesaila egitea, eta ezinbestekoa da sinesgarritasun eta naturaltasun puntu bat, eta iruditzen zait hori falta zaiela askotan gure ekoizpenei. "Anormal" bat zarela esan beharrean "babilore" bat zarela esatea ez da gauza bera. Badakit hizkuntzaren eta euskalgintzaren ikuspuntutik hori horrela dela, baina nik kalean ez dut horrela bizi, eta ni kalean bizi naiz, ez naiz bulegoetan bizi, hori ez da nire mundua. Eta pelikulak ere kalean bizi den jendearentzat egiten ditut.



Harkaitz Cano izan duzu lagun gidoia idazterakoan. Zer moduz berarekin lanean?

Adibidez, hizkuntzarena bada Harkaitzekin asko eztabaidatzen dudan zerbait, beti ez ditugu ikuspuntu berak. Harkaitzekin lan egitea oso ondo dago, bera idazlea da baina badauka zinearekiko zaletasun eta ezagutza handia, eta gidoi bat planteatzerako orduan badaki zer den posible eta zer ez. Gidoi bat lau eskutara idaztea ping-pong partida bat da, batzuetan batek egiten du tantoa eta bestean beste batek; abantaila da eskuzabalak garena bata bestearekin. Gainera, aspalditik ezagutzen dugu elkar, eta konfiantza horrek laguntzen digu. Gure sistema beti da norberak idazten duena besteari pasatzea, askotan bestearen begiek osatu egiten baitituzte hainbat gauza: nik zerbait idatzi dezaket oso ona izan daitekeena, eta hark beste buelta bat ematen dio eta sartzen zara istorioarekin obsesio batean. Gero erreallitatea dator eta gauza batzuk ezin dituzu egin, beraz, pragmatismo puntu bat ere behar da, eta Harkaitzek badaki pragmatismotik idazten.

Zenbait elkarrizketatan esan duzu formatu luzeko pieza bat egin arte ez zaituztela kontuan hartzen zinemagile gisa. Zuk pantaila txikiko pieza bat dakarzu oraingoan. Zelan dago baloratuta pantaila txikia?

Gizarteak telesailak ikusten ditu eduki bezala, ez sorkuntza edo arte bezala, musikarekin, berdin; erraztasunek eraman gaituzte horretara, entretenimendu soila izatera heldu da. Zine ofizialak oraindik eutsi nahi dio prestigioari, sorbaldatik begiratzen diete telesailari askotan, nolabait teko elite batean mantentzearen. Baina ikuslegoa telesailetan dago, eta egiterako orduan ere askoz errazagoa da telesail bat egitea, plataformek eta telebista kanalek nahiago baitituzte telesailak. Zine aretoak ixten ari dira, zinera ez da inor joaten.

Telesailen alde ona da berriro bihurtu dutela ikus-entzunezkoa zerbait herrikoa. Gu haurrak ginenean zinea herriaren aisialdia zen, baina hori guztia galdu da jada. Hori serieekin gertatzen da orain. Haurren bila joaten naizenean ikastolara, guraso guztiak serietaz ari dira hizketan, amak esaten dit ez dakit zein serie ari dela ikus-

ten... ikus-entzunezkoa berriro jarri dute mahai gainean. Zinea elite batean mugitzen da; baina ez da erreala, ez da herrikoa, muso zine bat egiten dugu askotan, oso jende espezializatuarentzat, gutxiengo elitista batentzat. Serieek ekarri dute berriro herriarena izatearen aukera.

“ ”

Museo zine bat egiten dugu askotan, oso jende espezializatuarentzat, gutxiengo elitista batentzat

2020an estreinatu zen Hondar Ahoak, bost urtera heldu da bigarren zatia; eta tarte horretan apenas izan da euskal telesailik. Zein irakurketa egiten duzu euskal telesailen egoeraz? Argi eta garbi, betikoa. Errazena izango litzateke esatea denok dakigula nork duen errua. Ni ere ados nago horrekin, baina horrek ez du oso ondo hitz egiten Euskal Herriko ekoizpen sektoreaz: zergatik ez da apusturik egiten euskaraz ekoiztearen alde? Guk egiten dugu, beste batzuk ere egiten dute. Nik uste herrialde normalizatu batean izan beharko genituela telesail gehiago: okerragoak, erdipurdikoak, tarteka onen bat... Baina ez dakit hori gertatzeko bidean gauden; ez hori posible egin behar dutenak, ez ikusleak. Hipokrita samarrak gara beti euskarazko edukia kontsumitzeko esaten, baina gero datuek esaten dute euskaldunok ere ez ditugula eduki horiek kontsumitzen. Eta, noski, inork ez du dirurik jarriko kontsumitzen ez den zerbaitetan, ez bada orain arte bizi izan duguna, dirulaguntzaz lagundutako kultura bat. Eta, bai, oso ondo dago hori, baina ez dugu hurrengo pausoa ematen. Eztabaida asko daude inork heldu nahi ez diena, inoiz ez delako momentua.

Argi dago administrazioak, erakundeek, EITBk berak apustu handiagoa egin beharko luketela euskarazko ekoizpenen alde, baina beste aldean gaudenok ere, zinea ikusten, ekoizten, programatzen dugunok ere egin beharko genuke. Esaten dugunetik egiten dugunera normalki distantzia handiegia dago. Ezin dugu espero

Netflix etortzea euskarazko ekoizpenen bila; inork ez du nahi, Euskal Herritik kanpo inork ez du ezer ekoiztuko euskaraz. Ez dago inolako interesik. Guri interesatu behar zaigu, guk izan behar dugu gure ekoizpenen burujabetza. Baina ekoizpen horiek kontsumitu behar dira. Askotan ikusten ditut aldarrikapenak Netflixek euskaraz ekoiztearen alde. Nik, Euskal Herrian zergak ordaintzen dituen pertsona gisa, nire zergak Netflixek pelikula ekoiztu ditzan eman behar den zalan-tzak ditut. Beste batek esango du ea gauza bera den ETBrekin eta nik horrekin ere zalantzak ditut, niri ere ez zait gustatzen *El Conquis*-ek daukan aurrekontua; baina beti egurra jende berari ematea eta gero Netflixi zurrupadak egiteak zer pentsatua ematen dit. Askotan horregatik esaten dut badaudela *billanoak*, baina gu ere ez gara arima zuriak. Hemen serieak egin dira, baina onartu beharko dugu: edo ez daukagu behar besteko talenturik, edo ez da dirurik jartzen, edo jartzen duten dirua ez dugu ondo kudetzen... Ez dakit.

“ ”

Hipokrita samarrak gara beti euskarazko edukiak kontsumitzeko esaten, baina gero datuek esaten dute euskaldunok ere ez ditugula kontsumitzen.



Zinemaldian estreinatu duzu seriea. Maspalomas ere bertan estreinatu dute, eta ARGIAko elkarrizketan hau zioen Aitor Arregi zuzendariak: “Zinemaldiak ez dizkizu gauzak errazago jartzen hemengoa zarelako. Agian, kontrakoa”. Zinemaldiak laguntzen du euskal zinean? Irakurri nuen elkarrizketa, eta ez nago ados. Kidetasunetik diot, noski; baina guretzat ez da zailagoa Zinemaldian sartzea, ez da egia. Ni kontziente naiz *Zeru Ahoak* egin izan banu, baina Zamorakoa (Espainia) banintz ziurrenik ez nengo-keela hemen. Guk erakutsi behar dugu gure lanak besteen alboan egoteko adina kalitate duela, baina niri hori beti iruditu izan zait ondo. Guk txikiak edo euskaldunak izateagatik ez dugu zertan beste langa bat izan gure lanen emaitzetan edo lanak neurtzerako orduan. Baina nik uste dut existitzen dela euskal zinemagi-

leontzat begirune moduko bat: argi dago sartzen ez garenean pentsatuko dugula ez dagoela eta madarikatuko ditugu, eta sartzen garenean ‘ze onak garen’. Nik uste dut Zinemaldiak egiten duela bai Moriarti, bai guretzat bai beste askoren-tzat lekutxo bat ere lana bermatzen du-zunean, kalitatezko lan bat. *Maspalomas* egiten baduzu, *Karmele* egiten baduzu... jakina zaudela Zinemaldian! Baina *Karmele* izango balitz Andaluziako istorio bat, egongo litzateke hemen? Bada ez dakit, nik uste dut ezetz.

Baina hori normala da. Frantsesek Can-nesen sartzen dute programazioaren er-ditik gora, italiarrek gauza bera, eta Zine-maldiak hori gurekin egitea iruditzen zait hala izan behar dela. Azkenean guk ere ordaintzen dugu hemengo Zinemaldia. Bai-na ez dut uste gehiago demostratu behar dugunik; demostratu behar dugu besteen mailan gaudela, besterik ez. ●

URRIAK 4
zapatua

LEKEITIO
IKUSGARRI ARETOAN. 17:00

Beñat Bilbao Landa,
Iker Uriarte Urrutia,
Iruri Altzerreka Martinez,
Jone Larrinaga Dañoibeitia,
Lurdes Ondaro Mallea
eta Txaber Altube Sarriónandia.
Gai-jartzailea: Zihara Enbeita Gardoki.

BIZKAIKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2025

LEHENENGO FASEA
www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea:    
Babesleak:   
Laguntzailea: 

URRIAK 5
domeka

MUNGIA
OLALDE ARETOA. 17:00

Ander Ucelay Aristi,
Imanol Uriá Albizuri,
Josune Aramendi Perez,
Maite Sarasola Isazelaia,
Peru Vidal Gurrutxaga
eta Unai Mendiburu Valor.
Gai-jartzailea: Jon Amezaga Fernandez.

Nafarroako
Bertsolari Txapelketa
2025

Lehenengo fasea
Urriak 4, larunbata
AURITZ
17:30ean, kultur etxean

www.bertsosarrerak.eus

Aitor Irastortza Arrizurieta
Egoitz Gorosterrazu Elizagoien
Eki Mateorena Zozaiá
Eneko Lazkoz Maróñez
Saats Karasatorre Maróñez
Urko Gartzia Aleman
Gai-jartzailea: Patxi Bueno Munarritz




73. DONOSTIAKO ZINEMALDIA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Barakaldarraren filma, urrezkoa

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Lehenbiziko aldiz 73 urteko historian, euskarazko interpretazio batek jaso du aktore onenaren saria, Jose Ramon Soroizek. Mende erdia egin du aktore lanetan, batik bat telebistan eta antzerkian, ez horrenbeste zineman, eta Soroizek aitortu du inola ere ez zukeela esperoko halako saririk jasotzea. Ez zukeen imajinatuko, ezta ere, horrelako pelikularik [Maspalomas] eta pertsonaiarik [Vidente] egitea. Hunkituta jaso du saria, eta hainbatetan azpimarratu meritua filmarena dela, gidoigileena, “izugarri istorio eta pertsonaia ederra” delako.

Euskarazko aktoreen artean, bestalde, palmaresean agertu ez bada ere, izen bat nabarmendu behar da: Nagore

Aranburu. Lau ekoizpen aurkeztu ditu aurtengo Donostiako Zinemaldian. Horietatik hirutan bigarren mailako pertsonaia antzeztu du, eta batean protagonista: *Maspalomas*-en alabarena egin du, *Karmele*-n amarena, *Los domingos*-en klausurako moja buruarena, eta *Zeru ahoak*-en, azkenik, Nerea Garcia protagonista detektibearena.

PALESTINAREN ALDARRIA

Garaiak eta uneak eragina izan ohi du Donostiako Zinemaldian, eta ez da gutxiagorako izan aurtengoa. Pandemiaren ostea musukoek diferentziatu bazuten, aurtun, Palestinaren aldeko sandia koloredun pegatinak eta txapak nabarmendu dira.

Irekierako eta itxierako galaren unean, Kursaalaren pareko etorbidea alderik alde okupatu dute manifestariak, Palestinaren aldeko eta Israelen aurka-ko mezuekin. Eta kasik egunero egon da zer edo zer. Azpimarragarriena, Palestinako benetako kasu bat kontatzen duen *The Voice of Hind Rajab* filmaren ostean, asteazkenean, karriketan egin zen manifestazio jendetsua, hala nola aktore eta zinegileek babestua. Milaka pertsona elkartu ziren.

Donostiako Zinemaldiaren antolakuntza ere ez da isilik geratu, baina aktoreen mailara heldu gabe, ez du Israelgo ekoiztetxeak boikotatzeko deirik luzatu. Birritan azpimarratu dute bi estaturen aukeraren alde daudela. ●

PALMARESA

Urrezko Maskorra:

Los domingos
(Alauda Ruiz de Azúa)

Zuzendari onena:

Joachim Lafosse
(*Six jours ce printemps-là*)

Interpretazio onena

(*ex aequo*):

Jose Ramon Soroiz (*Maspalomas*)
eta Zhao Xiaohong (*Jianyu laide mama*)

Taldeko interpretazio onena:

Camila Plaate (*Belén*)

Gidoi onena:

Joachim Lafosse eta
Chloé Duponchelle
(*Six jours ce printemps-là*)

Argazki onena:

Pau Esteve (*Los tigres*)

Epaimahaiaren sari berezia:

Historias del buen valle
(José Luis Guerín)

Euskal zinemaren Irizar Saria:

Los domingos
(Alauda Ruiz de Azúa)

Publikoaren saria:

The Voice of Hind Rajab
(Kaouther Ben Hania)

Euskal zinemaren gala

📷 DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Zinemira saria Asier Altuna eta Telmo Esnal zine zuzendariak jaso dute aurten, hogeitau urte igaro direlako *Aupa Etxebeste!* egin zutenetik. Antolakuntzaren esanetan, “euskarari bidea zabaltu zioten” pelikula horrekin. Filmean agertu ziren Iban Garate eta Ramon Agirre aktoreek eman zieten saria.

Bestalde, Sara Fantova zinegile gazteak jaso zuen Egile Berriak saria, EITBk emandakoa, *Jone, batzuetan* filmagatik. Horrez gainera, Euskal Aktoreen Batasunaren aurten-go Bultzada saria, ibilbidea omentzeko funtzioa duena, Miren Gaztañaga aktoreak jaso zuen. ●



Hainbat gomendio

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA / MARIA ORTEGA ZUBIATE / ENEKO ATXA LANDA



Die my love

Zuzendaria: Lynne Ramsay

Herrialdea: Kanada

Iraupena: 118 minutu

Estreinaldia: Azaroaren 21ean, zinemetan

Erditze osteko doluan dago Grace (Jennifer Lawrence), baina ez zaigu amaierara arte hitzez adieraziko. Kontakizun ero eta kaotikoa da, bere begiradatik ikusiko eta biziko baitugu istorioa.

Le cri des gardes / The Fence

Zuzendaria: Claire Denis

Herrialdea: Frantzia

Iraupena: 109 minutu

Estreinaldia: Ez dago ezarrita

Kolonialismoaren istorio bat da, dena leku eta gau bakar batean kokatuta, lau pertsonaiaren artean. Mendebaldeko Afrikako leku batean, bi negozio-gizon zuri, horietako baten neskalagun zuria, eta hildako anai eta beharginaren gorpuaren bila doan gizon beltza, hesiaz bestalde. Dena lehertuko da.



Ballad of a Small Player / Zorte txarra

Zuzendaria: Edward Berger

Herrialdea: Erresuma Batua

Iraupena: 104 minutu

Estreinaldia: Urriaren 20an, Netflixen

Film zoroa da, istorio aldetik ez ezik, irudi eta soinu aldetik ere bai. Zorretan murgilduta eta ludopatian jausita dagoen gizon itxuraz aberats bat da protagonista. Ezkutaturik bizi da, iraganetik ihes.

Ciudad sin sueño

Zuzendaria: Guillermo Galoe

Herrialdea: Espainia

Iraupena: 97 minutu

Estreinaldia: Azaroaren 21ean, zinemetan

Europako asentamendu irregularrik handiena da Madrilgo Cañada Real. Husteko agindua du. 15 urteko gazte ijito bat da protagonista, eta bere begiradatik kontatzen dira han bizitakoak: pertenezia, komunitatea eta sarea; baina baita periferia, indarkeria eta desberdintasunak ere. Gordin kontatzen ditu han bizitakoak, baina guztiak du ukitu poetikoa.





La grazia

Zuzendaria: Paolo Sorrentino

Herrialdea: Italia

Iraupena: 133 minutu

Estreinaldia: Urtarrilaren 16an, zinemetan

Italiako Errepublikako presidenteak, agintaldia amaitu aurretik, eutanasiaren legea sinatu ala ez erabaki behar du, baita bi indultu eman edo ez ere. Eutanasiaren, zahartzearen eta bizitzaren gaineko analisi sakon eta ederra.

Popel

Zuzendaria: Oier Plaza

Herrialdea: Euskal Herria - Espainia - Frantzia - Txekiar Errepublika

Iraupena: 90 minutu

Estreinaldia: Azaroaren 7an, zinemetan

Frankismoaren eta nazismoaren garaian desagertutako iheslari baten arrastoari jarraituz, beste errefuxiatu batzuen bidea jorratzen duen dokumentala. Bikain dokumentatu, ilustratu eta kontatua, memoria historikoak zauri ikusezinak sendatzeko duen gaitasuna erakusten du.



La misteriosa mirada del flamenco

Zuzendaria: Diego Céspedes

Herrialdea: Txile - Frantzia - Alemania - Espainia - Belgika

Iraupena: 110 minutu

Estreinaldia: Urtarrilaren 16an, zinemetan

Meatzarien herri txiki batean, emakume transexualek osatutako komunitate batek jasaten duen biolentzia erakusten du. Lidia gaztearen ikuspuntutik kontatua. Hiesaren eta transexualen gaineko aurreiritzi arriskutsuak, ahizpatasunaren eta elkar zaintzearen aurka...

Ainda estou aqui

Zuzendaria: Walter Salles

Herrialdea: Brasil

Iraupena: 137 minutu

Ikusgai: Movistar, Apple eta Filmin.

Brasilgo diktadura militarreko garaian kokatuta, Rubens Paivaren desagertetaren eta bere familiaren borrokaren istorioa jasotzen du liburuak, Paivaren seme Marcelok idatzitako liburuan oinarrituta, pelikularen izen berekoa. Kontakizun gogorra da, baina oso samur kontatutakoa. Ederra.





Hitz gezidunak
Gaia: * Kilometroak 2025

ZUREZKO JOSTAILU BIRAKARIA ----- BAGA, BIGA, ...	BAT-BATEAN SUAK HARTU ----- GURTZA	ALDE NAGUSIAREN KONTRAKO ALDE ----- TROPIKOE- TAKOA ----- EUROPIOA	GOIKO TOKIRA ----- RONA	OKELA BILT- ZEN DUEN MINTZA ----- POISE	* LELOA ----- OINEZKO LASTERKETA	BASOAK ZAITZEN DITUENA ----- DEBAKO AUZOA		
GAREZUR ----- HARREMAN				NAFARROAKO MENDIA ----- NITROGENOA				
					UGAZTUN HARAGIJALE ----- NAFARROAKO HERRIA			
HAUR, SEIN ----- ONDASUNIK GABE UTZI, LARRUTU			XALOTASU- NEZ					
SAN MARTIN ... NAFARROAKO UDALERRIA ----- SALBU							EMAITZA, DOHAIN	LAMA ----- HOTS ARIN
	AMPEREA ----- ZUR						GALDE PARTIKULA ----- EUROPAKO MONETA	NEWTON ----- UKULU, KORTA
ARRESKE ----- * HERRIA		TELEBISTA ----- DOZENA ERDI (ALDERAN- TZIZ)	ZAKURRA ----- ÖRNODUN URLEHORTAR	ARTE (NEOLOGIS- MOA)		DESAGER- TUTAKO UGAZTUN		
				UMO BIHURTU ----- ISLANDIAKO DOMEINUA				
ANTZINA, DUKERRI BATEKO JAUN ----- GARBIZALE- KERIA		JASANKOR ----- MEGA						
			AXOLAGABE					

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	2	3		9			1	
		5	2		3	4		9
	9		5	7		8	2	3
	6							5
2				3	5			
	4	7	9	6				
4	7		3				8	2
				2				
	5	2	4		1		7	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Arraun elkarte bizkaitarra
2. Puxtarri.
3. Bezala.
4. Fetua elikatzeko organo.
5. Koipea.

EBAZPENAK[illegible]

O	I	V	A	R	O	S		O	M	S	I	R	I	P
O	R	K	V	R	A	I	V	P		E	K	U	D	
U	T	O	U	M	O		R	A	B	O	I	G	L	E
	I	E	R	T			O		T		E	L	I	
N		A	L	V							A		T	V
I		V	R		E	M	A				X	N	U	
A		S	U									E		U
Z	T	O	S	U							U	P		
O	T	S	O		N	A	V	M	E	U	T	R	A	H
S	A	R	L	A	V			R	U	E	Z	U	B	
A	L	V	I	K	A	O	P	I			A	G	I	H
B		S		G		G		A			G		Z	



Makineria pisutsu baten oihartzunak

 LEIRE IKARAN

Aitortu behar dut nahi baino gutxiagotan joaten naizela Bilbora. Beti sortzen dit horrelako tristura moduko bat, orduko lagunartera berriz bueltatu nahi bat. Duela zazpi urte utzi nituen Bilbo, unibertsitate garaiko oste-gunak eta poteo amaigabeak. Alde Zaharrra joatea erabaki dut, norbait ezaguna bilatuko dudalakoan edo. Somera zeharkatu, kale paralelotik itzuli eta *Triangura* joan naiz. Ezer ez. Eseri naiz ezagutzen ez dudan taberna bateko mahaian, kontzertua hasi aurretik zeozer jateko asmoz. Eta bakardadeak baimenduta, inguratzeko nautenei begira hasi naiz. As-teburu usaina nabaria da; jendea gogoz dago, elkar bilatzen, asteko errutinaren monotoniatik ihesi. Ezinbestean behar ditugu horrelako momentuak, ez dut ukatuko, eta nik konpainia falta sentitu dudarik ere ez.

Kafe Antzokira iritsi, eta espero zitekeenez, jende gehiago topatu dut kanpoko terrazan areto barruan baino. Orduan igo dira Miren Narbaiza eta Moxal; eta Billie Eilish-en *What was I made for?* abes-

tiaren bertsioarekin ireki ostean, "Esaten dute garela oso *underground*, baina abesti honek Oscarra irabazi zuen", dio Moxalek. Erdi olgetan, erdi benetan. Sentsazio hori sortzen da nigan Moxal entzuten dudana bakoitzean, ez dakit abestietan serio hitz egiten ari den edo besteokin jolasean ote dabilen.

Banuen horrelako kuriositate bat jakiteko ea nola batuko zitzaion Miren Narbaizaren ahotsa Moxalek kantatzeko duen modu berezi horri. Eta esplikatzen zaila zaidan sinbiosi moduko bat sortu da bien artean; publikoa atmosfera ilun, eta aldi berean, oniriko batean murgiltzeraino. Moxalen abestien gordintasuna dantzarri bihurtzen du Mirenek.

Empty Files eszenatokira igotzearekin batera bete dira lehenengo ilarak. Publikoan ikusmina nabaria da. Izan ere, talde bilbotarraren jatorrizko formazioa igo da oholtzara, bere lehen diskoa, *Shadows* (2018), osorik jotzeko. Eta hala egin dute, hamar abestiak eta beste bi bertsio.

Ikuskizuna ez da kontzertu hutsa izan, esperientzia sentsorial oso bat izan da.

**EMPTY FILES + MOXAL
& MIREN NARBAIZA**

NON: Bilboko Kafe Antzokian.

NOIZ: irailaren 12an.

Hollows abestian, Txufo Wilsonen ia xuxurlaka hasi du kantua, hitz bakoitzak iluntasunean flotatuko balu bezala. Bitartean, atzeko pantailetan, bonba atomikoaren irudia poliki-poliki hurbiltzen, kamera geldoan, hondamendia gure gainera datorrela erakusten. Tentsioa apurka-apurka hazten joan da, eta ia oharkabea, abestiaren leherketa, eta harekin batera, bonba atomikoarena. Soinuak eta sentsazioak hain izan dira benetakoak, ezen momentu batez leherketa aretoan bertan izan dela pentsatu dudana. Sintetizadoreen bibrazioak bertoko guztion gorputzak zeharkatu ditu, ikusezin, baina erraieratik azalera hedatzen den dardara oso bat bezala.

Bilboko iragan industrialaren erraieratik zabaldu dutela iruditu zait momentu batez: soinu pisutsuak, ilunak eta testura kolpatuek tailerretako makinen burrunbak iradoki dizkidate. Elektronika iluna eta rock industrialaren iraganaren pisua arrastaka daraman hiri batean. "*Zaharra zara Bilbo*" dio kantuak, eta bukatu den kronologia bateko nostalgikak hartu nau kotxerako bidean. ●



LIBURUA

Kaixo berriro, karis



KULTURLIK

BESTE ZERBAIT
DANELE SARRIUGARTE
 CONSONNI, 2025

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Zazpi urte pasatu dira bigarren eleberria argitaratu zuenetik eta hamaika lehenengo liburutik. Bitate honetan, baina, letrei lotuta segitu du Sarriugartek. Besteak beste itzulpen lan interesgarri eta bikainak irakurri ahal izan ditugu (Luisa Carnésen *Hamahiru ipuin*, Alison Bechdelen *Fun home* edo Assata Shakurren *Autobiografia bat*, batzuk esatearren).

Beste zerbait eskaini nahi izan digu oraingoan idazleak eta horrela izendatu du liburu forman irakurri dezakegun hirugarren lana: *beste zerbait*. Azpiatal desberdinak dituen zortzi atal nagusitan banaturik dago testua. Txatalez osatuta dago, independenteki irakurri eta xehetasunez aztertu daitezkeenak. Bakoitzak bere tonua, bere estiloa, bere espazioa eta denbora ditu. Ezaugarri honek es-tualdian jartzen du kritikaria, irakaslea... testuak izendatu eta definitzen ditugunontzat konplexuago bilakatzen baitu lana. Eta aldi berean ezaugarri hori bero-

ri da liburuaren indargunea: hibridoa da, askotarikoa, ez bitarra eta Sarriugartek esan bezala, mutantea. Aldakorra, bizia eta indartsua. *Autosoziobiografia* izendapena ere gustatu zait, Audre Lorden *Bio-mitografia*-ren ildotik joan daitekeena.

Gloria Anzalduaren *Borderlands* liburu etorri zait gogora: idazlearen identitate *borderline*-a (ertzekoa eta askotari-koa) testuaren forman islatzea hautatu zuen Anzalduak. Horregatik aurkituko dugu konbentzionala ez den eran jasoa. Erraz definitzetik urruti poemek, saia-kerak, bere bizitzari buruzko pasarteek osatuko dute corpusa. Politikoki zein estetiki mestizoa da liburu, hizkuntza desberdinak nahasten dituena.

Sarriugarteren kasuan, protagonista lehenengo pertsonan ari zaigu ia liburu osoan zehar. Ertzean dagoen eta identitate aberatsa duen protagonistaren ahot-
 sa tonu, hizkera eta tipografia desberdi-
 nez eraikita eta adierazita dago: amorru
 eta ironiazko tonuek markatzen dute gi-

zarte heteroarautuari protagonistak egi-
 ten dion salaketa. *Deialdia* deitzen diren
 ataletan ere egiten du kritika hori: kasu
 honetan idatzi behar duenaren eta idatzi
 nahiko lukeenaren arteko talka zirrima-
 rratuta agertzen diren zatiek erakusten
 digute. Probokatzaileria da. Itxaropen eta
 alaitasun tonuak ere badaude: adiskide-
 tasunaz, maitasunaz eta komunitateaz
 hitz egiten duenean bereziki. Harrota-
 suna bere ahotso aurkitu eta plazer han-
 diena ematen dion hori egitera bueltatu
 denaren ahotsean dago ("*kaixo berriro,
 karis*". 125.orr). Politikoki zein estetiko-
 ki mutantea da liburu, hizkuntza des-
 berdinak nahasten dituena.

Irentsi egin dut liburu. Protagonis-
 tarekin batera haserretu naiz eta barre
 egin dut. Idazlearen beste lanekin ger-
 tatu den bezala bibliografia oparoa utzi
 digu irakurtzen jarraitzeko. Pieza ba-
 koitza bere lekuan ezarrita dago baina:
 puzzle osoa eta borobila da Sarriugarte-
 ren azkena. ●



MUSIKA

Hitzordu berriak Kursaal Eszenan



KURSAAL ESZENA

NON:

Donostiako Kursaal Jauregian.

NOIZ:

2025eko urri eta abendu artean.

MONTERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Uda azkar pasatu zaigu, oraindik buruan ditugu Musika Hamabostaldian gozatu ditugun kontzertu zoragarrien akordeak, baina udazkeneko denboraldian pentsatzen joan behar dugu, ziur musika klasikoko proposamen bikainekin gozatzeko aukera izango dugula. Udazkeneko proposamen guzti hauen artean, Kursaal Eszenak planteatzen dizkigunak komentatuko ditut. Aspaldidanik, Kursaalak ikuskitzen programazio propioa garatzen du, kalitate eta ospe handikoa, eta horien artean musika klasikoak atal garrantzitsua du.

Hiruhileko honetan, urritik abendura, galdu behar ez genituzkeen lau kontzertu bikain entzun ahal izango ditugu atal klasikoan. Hiperklasikoak dira (abangoardiari kontzesio txiki batekin), baina balio segurua dira, zalantzarik gabe.

Hasteko, urriaren 22an zuzendari magiko eta erabat karismatiko horietako batekin egingo dugu topo: Philippe Herrewegherekin. Musikari belgikarrak Orchestre des Champs Élysées zuzenduko du, Beethovenen sinfonien

integralaren zikloaren barruan (Kursaal Eszenak denboraldi ezberdinetan banatuta eskaintzen duena), 5.a eta 6.a eskaintzeko. Ez da zuzendariak Beethoveni buruz duen ikuspegi berezia Donostiara ekartzen duen lehen aldia. Garaiko instrumentuak erabiltzen dituen Orchestra of the Age of Enlightenment taldearekin batera, Beethovenen sinfonien integrala interpretatu zuen Musika Hamabostaldiaren aurreko edizioetan. Oraingo honetan, eta oso bestelako orkestra batekin batera (nahiz eta garaiko instrumentuak ere erabiltzen dituzten), ñabardura eta kolore ezberdinak entzun ahal izango ditugu.

Azaroaren 7an, Mikhail Pletnev, piano-jole errusiar onenetako bat, entzun ahal izango dugu. Urteak dira Donostia bisitatu ez duela, baina gurekin egon den bakoitzean oso aho zapore ona utzi du. Musikari osoa da, orkestra-zuzendari handia ere bai. Pianista gisa, benetan kameleonikoa da, obra bakoitzari nortasun berezia ematen diona. Jenio bat.

Egitaraua, klasikoak klasikoen artean: Bach, Schumann eta Grieg. Besteak beste,

Schumannen *Kreisleriana* poliptikoaren poetikaz gozatu ahal izango dugu.

Eta abangoardiako ukitua XVII. mendeko obra batekin iritsiko da, kontrastea dirudien arren. Henry Purcellen *The fairy queen* (Maitagarrien erregina), Shakespearearen *Udako gau bateko ametsa* lanean oinarritutako erdi-opera ederra, hip-hop eta dantza garaikidea protagonista izango dituen koreografia batek apainduko du. Les Arts florissants taldeak eta Compagnie Käfig baletak magia ekarriko digute Kursaalera.

Eta hiruhileko programazioa abenduaren 17an amaituko da, Gabonen inguruan falta ezin den obra batekin. Bachen *Gabonetako Oratorioa*, Il Gardellino Orkestraren eta Kataluniako Palau de la Músicaren Cor de Cambraren eskutik, Paul Gerhard, Martin Lutero eta Johann Rist idazleen testuekin, Itun Berriaren kontakizunera hurbilduko gaitu, Bachen musika ederraren bitartez.

Azken finean, lau kontzertu Kursaal Eszenaren eskutik, urte amaierara arteko azken tarte hau eramangarriagoa egingo digutenak. Ez itzazue galdu. ●

Joselontxotik Vicentera (biba Soroiz)

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Pertsonaia batek zerbait fundamentalak ukitzen duenean, hura interpretatu duen aktorearekin maila sinestezinean fusionatu daiteke. Kontxu Odriozolak elkarrizketa batean kontatu zuen: hain zegoen mimetizatua publikoarentzat *Goenkale*-n interpretatzen zuen Maria Luisa Galardirekin, ezen jendeak kalean geratzen baitzuen esateko gogor segi zezala Boga-Bogan txikiteoan aritzen ziren gizon horiekin.

Goenkale-n ikusi genuen Joxe Ramon Soroiz ere. Baina egia esan, orduan nintzen ikusleak -10 urteko ikusleak, dena esan behar da- ez zuen behar bezala baloratu: zein zen Martin Lasa hura? Zergatik zegoen haserre bere anaiarekin? Zergatik ezin nuen barrerik egin berarekin? Edo, beste modu batera esateko: non sartu zen algaraka jartzen ninduen Joselontxo?

Ulertu behar izan nuen hura beste telesail bateko pertsonaia zela -Z belaunaldiko gehienentzat ohar wikipedikoa: *Bi eta bat* zuen izena Soroizek aurretik protagonizatutako serieak; *sitcom* bat zen-. Ulertu behar izan nuen, gogoz kontra hori bai, Soroiz ezin zela bakarrik Joselontxo izan. Orain pentsatzen jarrita, beharbada momentu horretan hasi zen gaur arte irauten didan gizaikiaren dualtasunari buruzko kezka. Gai pasionagarria da, zeren Descartesez idatzi zuen mod... ei, aizue, nora zoazte? Bale, bale, ez alde egin, oraintxe segituko dut Soroizekin.

Izan ere, *Goenkale*-ren ondoren *Jaun ta jabe* etorri zen eta ez, Joselontxo ez zen itzuli, baina gauza are dibertigarriagoa agertu zitzaigun pantailan: Joxe Antonio Arizkorreta lehendakari-sukaldaria, Eneko

Olasagastik zuzendutako komedia politikoan. Tripak botarazi zizkidan -eta bromak luze iraun zuen: handik urte batzuetara, prentsa kontuetan buru-belarri sartuta, irribarretxo bat ateratzen zitzaidan oraindik Euskal Herriko bake prozesua aurrera ateratzeko "sukalde-lana" aipatzen zen bakoitzean: "Gernikako piperrak, mixeraz beteak!"-. Gaur goizean, kafea hartzen ari zaren unean, herri honetan inork ez du komedia politikoaren alorrean gailur hori berriz usaindu ere egin -Patxi Lopez gogor saiatu zen arren-.

Joselontxo, Martin Lasa, Super Arizko... bale, baina hurrengoak gehiegi izan

zen: *Ertzainak*. Hamabost urte nituen. "Tio, Joselontxo: zipaio? Egitan!? Paso. Paso, paso, paso". Handik urte batzuetara Soroiz bera Nikola Agirre errebeldea bilakatu zen *Metxa* antzezlanean; ordu-rako agirretarren bandera nirea egin ez banuen, izagirretartu samar behintzat seguru banenbilela. Berradiskidetu nintzen Joselontxo... Arizko... Soroizekin.

Gainera, zeozer ikasia nuen fikzioa eta errealitatea, aktoreak eta pertsonaiak bereizteaz. Gero gauza inportanteagoak ikasi ditut. Adibidez: arinkeria jasanezinez baztertzen ditugula sarritan gure fikziozko lanak -*Ertzainak*, berandu konturatu nintzen, jauzi handia izan zen aurretik hemen telesailak egiteko moduarekin alderatuta-; edo behin erregistro batean gustatu zaigun aktoreari beti erregistro horretan aritzeko eskatzen diogula -gutxi gorabehera musikariei beren betiko *hit*-ak jotzeko eskatzen diegun bezala; edo idazleei beti liburu bera idatz dezatela-; eta hori eginez ere itotzen ditugula gure artisten ibilbideak.

Forofo batek bezala egin nuen sofatik salto Donostiako Zinemaldiko sari-emate ekitaldian Joxe Ramon Soroizen izena entzun nuenean. Etxeko norbait saritu izan balute bezala, aizue. *Maspalomas*-eko Vicente ez da pertsonaia bat gehiago izango haren ibilbidean, paper batean sartzen denean zein kolore-gama zabala eduki dezakeen erakutsi duen lana baizik -eta nola gauza ona zen ikasiko dugu behingoz, urtetan tonu horietako batzuk probatzeagatik merezitakoa baino arreta gutxiago eskaini diogunok ere-. ●



DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

“Migratzaile izate hutsagatik,
beltza izateagatik,
zapalkuntza handia jasaten dugu
eta INOR EZ DA ILEGALA
mezua Euskal Herri osoan
barreiatzea lortu dugu,
proiektu borrokalaria da”

Bouba Diouf

Eskerrik asko

ekimena babestu duzuen guztioi.

Proiektua indartzen jarrai dezagun.

ARGIA *Azoka*

Amul been nit ku leegalul

inor
ez
da
ilegala

ARGIA eta MBOLO MOYE DOOLE ELKARTEA



ESKERRIK ASKO, UR-LAGUNAK!

Ura bizia da. Paregabea.
Ongietorria bedi bizia zaintzeko ekarpen oro, bada.
Administrazioek, enpresek, elkarteek, herritarrek... elkarrekin babesten
ditugu ibaiak, lakuak, hezeguneak, estuarioak, akuiferoak, kostaldeak...
Eskerrik asko, Ur-Lagunak!



UR-LAGUNAK.
URA DA. GU GARA.



URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO